

UDAL ARAUDI ORGANIKOA (UAO) BEHIN BETIKO ONARTZEA

2013ko ekainaren 27ko Udalbatzaren erabakiz, aurkeztutako alegazio bakarra baztertu zenez, akordioa behin betikotzat jotzen da, eta hori Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen 7/1985 Legeko 49. c) artikuluekin ados, eta irailaren 21eko 11/1999 Legearen erredakzioaren arabera. Beraz, araudi hau indarrean sartuko da aipatu legeko 65.2 artikulua aurreikusten duen epea amaitu eta hurrengo egunean, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Araudia behin betiko onartzearen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietako salan, bi hilabeteko epean, gai hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**LEIOAKO UDALEKO (BIZKAIA)
ARAUDI ORGANIKOA ETA
HERRI PARTAIDETZAKOA**



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

00 / 00

AURKIBIDEA

ATARIKO TITULUA.....	4-5
I. TITULUA. ALKATEA	6-9
I. KAPITULUA. ESKUMENAK ETA HORIEK ERABILTZEKO MODUA.....	6
II. KAPITULUA. EBAZPENAK, BANDOAK ETA INSTRUKZIOAK.....	8
II. TITULUA. UDALAREN OSOKO BILKURA	10-27
I. KAPITULUA. ESKUMENAK ETA HORIEK ERABILTZEKO MODUA.....	10
II. KAPITULUA. BILERA MOTAK ALDIZKAKOTASUNAREN ARABERA	11
III. KAPITULUA. BILKUREN ARAUBIDEA ETA GARAPENA.....	12
IV. KAPITULUA. GAI ORDENA. ERABAKIAK HARTZEKO PROZEDURA.....	17
I. ATALA. Irizpenak.....	17
II. ATALA. Proposamenak.....	18
III. ATALA. Mozioak.....	18
IV. ATALA. Zuzenketak.....	19
V. KAPITULUA. DEBATEAK	21
VI. KAPITULUA. BOZKETAK	23
VII. KAPITULUA. INFORMAZIO, BULKADA ETA KONTROLERAKO TRESNAK.....	25
I. ATALA. Galderak.....	25
II. ATALA. Eskeak.....	26
VIII. KAPITULUA. ZENTSURA-MOZIOA ETA KONFIANTZA-ARAZOA.....	27
IX. KAPITULUA. AKTAK.....	27
III. TITULUA. GOBERNU BATZORDEA.....	28-30
I. KAPITULUA. IZAERA, OSAERA ETA FUNTZIOAK.....	28
II. KAPITULUA. GOBERNU BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA.....	28
III. KAPITULUA. ANTOLAKETA.....	30
IV. TITULUA. ALKETORDEAK ETA GOBERNU ARDURA DUTEN ZINEGOTZIAK	31
I. KAPITULUA. ALKATEORDEAK.....	31
II. KAPITULUA. GOBERNU ARDURA DUTEN ZINEGOTZIAK.....	31
III. KAPITULUA. DEDIKAZIO ERREGIMENA.....	31
V. TITULUA. ORGANO OSAGARRIAK.....	32-37
I. KAPITULUA. BATZORDEAK.....	32
I. ATALA. Xedapen arruntak	32
II. ATALA. Informazio Batzorde Iraunkorrak	32
III. ATALA. Kontuen Batzorde Berezia.....	35
IV. ATALA. Informazio Batzorde Bereziak.....	36
II. KAPITULUA. BOZERAMAILEEN BATZORDEA.....	36



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

VI. TITULUA. ZINEGOTZIEN ESTATUTUA.....	37-46
I. KAPITULUA. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK	37
II. KAPITULUA. INFORMAZIO ESKUBIDEA.....	40
III. KAPITULUA. INTERES ERREGISTROAK.....	42
IV. KAPITULUA. TALDE POLITIKOAK	43
 VIII. TITULUA. HERRITARREN PARTAIDETZA	 47-54
I. KAPITULUA. OROKORTASUNAK.....	47
II. KAPITULUA. HERRITARREN PARTE HARTZEA UDAL ORGANOETAN	48
III. KAPITULUA. PUBLIZITATEA.....	49
IV. KAPITULUA. INFORMAZIOA ESKURATZEA	49
V. KAPITULUA. UDAL GOBERNU ORGANOEI PROPOSAMENAK EDO IRTITZIAK HELARAZTEKO ESKUBIDEA	50
VI. KAPITULUA. ESKATZEKO ESKUBIDEA	50
VII. KAPITULUA. HERRITARREN ELKARTEAK.....	51
I. ATALA. <i>Elkarteen partaidetza</i>	51
II. ATALA. <i>Udal laguntzak jasotzeko baldintza orokorrak eta irizpideak</i>	52
VIII. KAPITULUA. HERRI-KONTSULTA	52
IX. KAPITULUA. HERRI EKIMENAREN ESKUBIDEA	53
X. KAPITULUA. ARLOKAKO AHOLKU BATZORDEAK	54
 XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	 54
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	55
AZKEN XEDAPENA	55

ATARIKO TITULUA

1. ARTIKULUA: ARAUDIAREN XEDEA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a, 22.1.d, 24, 62.2, 69.2 eta 72 artikuluekin bat etorritz, araudi honek ezarri nahi ditu:

- a) Udalaren antolaketari eta Udaleko organoen jardunbideari buruzko arauak.
- b) Korporazio-kide izateko hautatu direnen estatutua.
- c) Herri partaidetza.

2. ARTIKULUA. ITURRIEN ARTEKO HURRENKERA

Araudi honek arautzen dituen gaitan, iturrien hurrenkera honakoa izango da:

- a) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (apirilaren 21eko 11/99 eta abenduaren 16ko 57/2003 Legeek aldatua) eta Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa, 186. artikuluan eta ondorengoetan jasotako gaiei dagokienez.
- b) Toki Araubidearen Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/86 Legegintzazko Errege Dekretuaren oinarritzko manuak.
- c) Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren legeriak, azaroaren 25eko 2/1983 Legeak ezarritako eskumen banaketaren arabera; lege horrek arautu ditu Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanak.
- d) Udal Araudi Organiko hau.
- e) Apirilaren 2ko 7/85 Legetik eta apirilaren 18ko 781/86 Legegintzazko Errege Dekretutik, oinarritzkoak ez diren manuak.
- f) **Azaroaren 20ko** 2568/86 Errege Dekretua, Toki Erakundearen Antolaketari Jardunbideari eta Araubideari buruzko Erregelamendua onetsi zuena, betiere, oinarritzko manuen isla ez den heinean.

3. ARTIKULUA. ARAUBIDE ORGANIKOAREN GARAPENA

1. Araudi honen arauak gara daitezke, Korporazioaren Osoko Bilkurak edo Alkatetzak emandako xedapen eta jarraibideen bitartez, udaleko organo horiei dagozkien eskumenen arabera.

2. Alkateak eskumen hori erabiltzen duenean, kontuak emango dizkio Osoko Bilkurari, berak onetsi dituen xedapen eta arauetara buruz.

4. ARTIKULUA. GOBERNUA

Udalari dagozkio Leioako Elizateko udal gobernu eta administrazioa. Alkateak eta zinegotziek osatzen dute Udala.

5. ARTIKULUA. UDALAREN ORGANOAK

Udalaren antolaketak honako egitura hau du:

- a)** Gobernu organoak.
- b)** Organo osagarriak.

6. ARTIKULUA. GOBERNU ORGANOAK

Udalaren gobernu organoak dira:

- a)** Alkatea
- b)** Osoko Bilkura
- c)** Gobernu Batzordea
- d)** Alkateordeak
- e)** Gobernu ardura duten zinegotziak

7. ARTIKULUA. ORGANO OSAGARRIAK

Organo osagarriak dira:

- a)** Informazio batzorde iraunkorrak
- b)** Informazio batzorde bereziak
- c)** Bozeramaileen batzordea

8. ARTIKULUA. AHALMENAK ERABILTZEA

1. Udalaren gobernu organoei dagozkien ahalmenak ukaezinak dira, eta horiek erabiltzeko, lege bidez ezarritako eskumen-banaketa beteko da, eskuordetze edo goragokoak eskumenak bereganatzen dituen kasuetan izan ezik. Eskuordetzeak formalizatzeko, halakorik izanez gero, erabaki eta ebazpen egokiak hartuko dira, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeak, horren Testu Bateratuak (apirilaren 18ko 781/86 Legegintzazko Errege Dekretuaren bitartez onetsi zen) eta Autonomia Erkidegoko legeria egokiaren arabera.



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

I. TITULUA. ALKATEA

I. KAPITULUA. ESKUMENAK ETA HORIEK ERABILTZEKO MODUA

9. ARTIKULUA

1. Alkatea korporazioaren presidentea eta Udal Administrazio osoaren burua da.
2. Zinegotziek aukeratuko dute Alkatea, hauteskundeei buruzko lege orokorraren arabera.
3. Alkateak kargua utziko du honako arrazoi hauek tartean badira:
 - a) Agintaldia bukatzea.
 - b) Alkateak karguari uko egitea edo Alkatea bera hiltzea.
 - c) 8/99 Legearen 197. artikuluaaren arabera, eta araudi honen 64. artikuluan bat etorritik, zentsura-mozioa onestea; lege horrek aldarazi egin zuen Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko 5/85 Lege Organikoa.
 - d) Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko 5/85 Legeko 197bis artikuluaaren arabera, konfiantza arazoa ez gairatzea.
 - e) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen edota hauteskundearen legeria orokorrean ezarritako gainerako inguruabarrak gertatzea.
4. Alkateak karguari uko egin ahal izango dio eta zinegotzi izaten jarraitu. Uko egitea idatziz egin beharko da Korporazioko Osoko Bilkuran, eta azken horrek, ezagutza-erabakia hartu beharko du hurrengo hamar eguneko epearen barruan.

Kasu horretan, plaza hutsa hauteskundearen legeak aurreikusten duen moduan beteko da.

10. ARTIKULUA

1. Alkatearen ahalmenak dira:
 - a) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeak berari ematen dizkionak; aurreko legearen testu bateratuak, hau da, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuak berari ematen dizkionak; eta toki araubidearen arloan onetsitako legeak eta erregelamenduek berari ematen dizkionak.
 - b) Gainerako legeak eta arlokoak berari ematen dizkionak.
 - c) Udal Araudi Organiko honek berari ematen dizkionak.
2. Zehazki, Alkatearen ahalmenak dira Udala ordezkatzeko, Gobernua eta Udal administrazioa zuzentzea eta indarrean dagoen legediak berari ematen dizkion gainerakoak. Horien artean, honako hauek: Udal Gobernua osatzen duten arloak, eta Udal Administrazioa osatzen duten Sailak, Zerbitzuak eta bestelako erakundeak antolatzea. Horretarako, Udalaren kide anitzeko organoen presidente izango da, beren-beregi eskuordetzen ez badu edo kontrakoa xedatzen duen maila altuagoko xedapen legalik ez badago.

11. ARTIKULUA

Alkatea bere karguan arituko da, dedikazio eskusibo eta osoarekin; eta kargu horri aplikatuko zaizkio indarreko arautegiak udaleko kargu publikoentzat ezartzen ditun bateraezintasunak.

Aurreko paragrafoan jasotako erregela orokorrari kalterik egin gabe, Alkatetzak berak, kasuan kasuko inguruabar pertsonalak aintzat harturik, salbuespena jar diezaioke dedikazio eskusiboaren arauketari; kasu horretan, Alkatea karguan arituko da dedikazio partzialarekin. Halaber, Alkatetzak erabaki dezake aurrekoetatik bat bera ere ez aplikatzea. Kasu horietan guztietan, Alkatetzak ebazpen zioduna emango du, eta horren berri emango dio Udalaren Osoko Bilkurari.

12. ARTIKULUA

1. Alkateak, dedikazio osoa zein partziala izan, Alkate kargua izateagatik, ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du. Halaber, lege-aginduz berari dagozkion kalte-ordainak eta dietak jasoko ditu.

2. Alkateak, dedikazio eskusiboa duenean, ezin izango du kalte-ordainik jaso Udalari lotutako Erakunde Autonomo eta Merkataritza Sozietateen kide anitzeko organoen bileretara joateagatik, horien titulartasun eskusiboa edo titulartasunaren gehiengoa Udalarena denean.

13. ARTIKULUA

Alkateak, dedikazio eskusiboa zein partziala izan, karguaz jabetzen denetik hori utzi arte, alta emango zaio Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean. Udalaren korporazioak bere gain hartuko du alta horri dagozkion enpresa-kuoten ordainketa; ordainketa horien edukia eta norainokoa ezarrita daude Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 75. artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak horri eman zion idazkeraren arabera.

14. ARTIKULUA

Alkatea, behin karguaz jabetu eta hori utzi arte, karguari dagozkion ohore, abantaila eta bereizgarriak izango ditu, Estatuko legeak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko legeak hala ezartzen badute. Bestalde, Alkateak zehatz-mehatz bete beharko ditu kargu horri datxekion eginbeharrak eta betebeharrak.

15. ARTIKULUA

1. Alkateak bere ahalmenen erabilera eskuordetu ahal du, apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.3 eta 71. artikuluetan aipatutakoak salbu.

2. Eskuordetzearen norainokoa izango da azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritakoa; lege horrek Herri Administrazioen Araubidea eta Administrazioarekiko Prozedura Erkidea arautu ditu.

3. Alkateak bere eskumenen erabilera eskuordetu ahal dio Gobernu Batzordeari, hori kide anitzeko organoa den aldetik. Kasu horretan, Gobernu Batzordeak erabakiak hartzen baditu eskuordetutako gaien gainean, orduan balio berbera dute erabaki horiek eta Alkateak berak eskuordetu ez dituen gaietan ematen diren ebazpenak; horri kalterik egin gabe, halako erabakiak har daitezke, betiere Araudi Organiko honetan ezarritakoaren arabera.

4. Alkateak ahalmen jakin batzuen erabilera eskuordetu ahal dio Tokiko Gobernu Batzordeari. Horri kalterik egin gabe, Alkateak eskuordetze bereziak egin diezazkioke edozein zinegotziri zeregin zehatzetarako, nahiz eta zinegotzi hori kide anitzeko organo horren kide ez izan.

5. Alkatetzak eskumenak eta ahalmenak eskuordetzen dituenean, eskuordetze horien erabilerari eta goragokoek eskumenak bereganatzeari, sinadura eskuordetzeari, ordezkapenei eta gainerakoei aplikatuko zaie azaroaren 26ko 30/1992 Legeak gai horretan ezarritakoa.

6. Eskuordetutako ahalmena erabiliz, ebazpenak eman badaitezke eta ebazpen horiek kalte egin ahal badiete gainerakoei, orduan eskuordetzearen barruan ez da inoiz ere sartuko egintza horien aurkako errekurtsioak ebazteko ahalmena; ahalmen hori, beti, eskuordetzea egin duen organoak izango du.

II. KAPITULUA. EBAZPENAK, BANDOAK ETA INSTRUKZIOAK

16. ARTIKULUA

1. Alkatearen ebazpenak haren izenean egingo dira. Administrazio ebazpenak eskuordetze bidez ematen direnean, beren beregi adieraziko da inguruabar hori, eta eskuordetzea zein agintarik egin eta ebazpenok agintari horrek eman dituela ulertuko da.

2. Komunikazioak agintariei bidaltzen bazaizkie, orduan Alkateak sinatuko ditu komunikazio horiek, edo bestela, berriazko eskuordetzea duen zinegotziak. Bestelako komunikazioek erabaki edo ebazpenen berri besterik ez badute ematen, orduan Idazkaritza Nagusiak sinatuko ditu halakoak, baita epatzeak ere.

3. Alkatearen bandoek gogorarazi ahal izango dituzte izaera orokorreko xedapenek ezartzen dituzten eginbehar edo betebeharrak, edo neurri bereziak ezartzeaz ohartaraziko dute, arauen aplikazioaren salbuespena izan daitezkeenak aparteko larrialdi arrazoiengatik.

Bandoak argitaratuko dira Udalaren iragarki-taulan, web orrian eta ontzat jotzen diren bestelako bideen bitartez, herritarrek behar bezala ezagut ditzaten.

Aparteko larrialdi arrazoiengatik egindako bandoez berehala informatuko da Korporazioko Udalbatzan.

4. Alkateak Udal Administrazioa osatzen duten organo eta erakundeen aktibitatea zuzendu ahal izango du udal zerbitzuei zuzendutako barne aginduen bitartez, "Alkatearen Instrukzioak" deituko zaizkie horiei.

17. ARTIKULUA

Idazkaritza Nagusiak, Alkatetzak azken ez-ohiko bilkuratik hartutako ebazpenen berri emango dio Korporazioari zinegotziek udal administrazioaren garapena ezagut dezaten, gobernu organoen kontrol eta fiskalizaziorako, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2,a) artikulua aurreikusten duen bezala. Komunikazio hori, jasotzea ziurtatzea ahalbidetzen duen edozein komunikabide idatzi edo telematikoren bidez egingo da, eta Osoko Bilkuraren ohiko saioen deialdi eta gai ordenari erantsiko zaizkio.

18. ARTIKULUA

1. Alkatearen edo Alkatetzak eskuordetutako zinegotzien Dekretu eta Ebazpen guztiak Idazkaritza Nagusiak berretsi beharko ditu, eskudantzia suntsiarazle funtzioak betez.

2. Berrespen horrek ziurtatu egingo du agirian agertzen den autoritatearen sinadura benetakoa dela, autoritate hori bere funtzioak betetzen ari dela eta egintza administratiboa dagokion Erregistro Liburuan behar bezala erregistratu dela.

3. Alkatearen ebazpenak liburu batean bakarrik jasoko dira; liburu horri "Alkatetzaren Ebazpenei buruzko Liburua" deituko zaio. Zinegotzi delegatuenak liburu horretan bertan, edo besteren batean, transkribatuko dira, Alkatetzaren erabakiaren arabera, Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 20ko 2568/86 Errege Dekretuko 200. artikulua ezarritakoaren arabera.

4. Alkatearen ebazpenek datu pertsonalak babesteko eskubidea gordetzeko forma egokia izango dute.

II. TITULUA. UDALAREN OSOKO BILKURA

I. KAPITULUA. ESKUMENAK ETA HORIEK ERABILTZEKO MODUA

19. ARTIKULUA

Zinegotzi guztiek osatzen dute Osoko Bilkura eta Alkatea da horren buru.

20. ARTIKULUA

1. Hauteskunde legeriaren arabera, Osoko Bilkura eratu eta gero, Osoko Bilkura horri hurrengo ahalmenak dagozkio:

- a)** Apirilaren 2ko 7/85 Legeak ematen dizkionak, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren bidez onetsitako testu bateratuak ematen dizkionak, eta toki araubideari buruzko legeek eta erregelamenduek ematen dizkiotenak.
- b)** Arlo horretako gainerako legeek eta arauak ematen dizkiotenak.
- c)** Udal Araudi Organikoak ematen dizkionak.

21. ARTIKULUA. AHALMENAK ESKUORDETZEA.

1. Udalaren Osoko Bilkurak bere ahalmen guztiak edo batzuk eskuorde diezazkieke Alkateari eta Gobernu Batzordeari. Salbuespenez, ezin dira eskuordetu, batetik, legez eskuordetu ezin direnak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.4 artikuluan aipatutakoak, eta bestetik, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren 23.2 artikuluan aipatutakoak. Halaber, ezin izango dira eskuordetu Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedura Komunari buruzko 30/92 Legeko 13.2 artikuluan aipatutakoak.

2. Osoko Bilkurak eskuordetzea erabaki dezan, nahitaezkoa da botoen gehiengo soila horren alde egotea. Behin erabakia hartuta, horrek ondorioak sortuko ditu, erabakia hartu eta biharamunetik; ondoren, erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Erregela berberak aplika dakizkieke ere erabakiaren osteko aldarazpenei.

3. Eskuordetzeari buruzko erabakiak zehaztuko du zein den eskuordetzearen eremua, zeintzuk diren eskuordetutako ahalmenak eta zein baldintza bete behar den ahalmen horiek erabili ahal izateko; hala egin beharko da, eskuordetzea egitean, Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa onesten duen azaroaren 20ko 2568/86 Errege Dekretuko eta Araudi honetako arauketa orokorra zehazten bada, edo neurri batean behintzat, arauketa horretan aldaketak sartzen badira.

4. Osoko Bilkurak eskuordetzen badu finantza-kudeaketaren arloan, orduan, eskuordetze hori egin daiteke, aurrekontuaren betearazpenerako oinarrien bitartez ere bai.

5. Eskuordetzearen bidez, ebazpenak eman badaitezke eta ebazpen horiek kalte egin ahal badiete gainerakoei, orduan, eskuordetzearen barruan ez da inoiz ere sartuko egintza horien aurkako errekursoak ebazteko ahalmena; ahalmen hori, beti, eskuordetzea egin duen organoak izango du.

II. KAPITULUA. BILERA MOTAK ALDIZKAKOTASUNAREN ARABERA

22. SAIOAK NON IZANGO DIREN

1. Udalaren Osoko Bilkurak bilerak egingo ditu, Udaletxean dagokion Aretoan.

2. Ezinbesteko kasuetan, bilerak egiteko beste eraikin edo lokal bat erabil daiteke; horretarako, aldez aurretik, Alkatetzak deialdia egin edo ebazpena emango du, behar bezala justifikaturik, eta hori banan-banan jakinaraziko zaie korporazio-kide guztiei. Edozein kasutan ere, inguruabar hori akta egokian agertaraziko da.

23. ARTIKULUA

Osoko Bilkuraren bilerak hiru motatakoak izan daitezke:

- a) Ohikoak.
- b) Ezohikoak.
- c) Ezohikoak, urgentziaz egindakoak.

24. ARTIKULUA. OHIKO BILERAK

Ohiko bilerak dira aurretik ezarritako aldizkakotasunaren arabera izaten direnak.

Araudi honen 25.4 artikulua aipatzen duen ezohiko bilera horretan, Osoko Bilkurak finkatuko du, Alkateak hala proposatuta, Osoko Bilkuraren ohiko bileren aldizkakotasuna; aldizkakotasun hori ezin da inola ere hilabetetik gorakoa izan. Salbuespenez, Alkatetzak, arrazoi justifikatuengatik eta behin bozeramaleei entzunda, data eta ordua aurreratu edo atzeratu ahal izango ditu, baita finkatutako egun berria legokiokeen hiletik kanpo balego ere. Hala ere, orokorrean, ez da bilerarik izango abuztuan.

Ohiko bileren aldizkakotasuna zehazturik, Alkateak finkatu beharko ditu bilera bakoitzaren data eta ordua.

25. ARTIKULUA. EZOHIKO BILERAK

1. Korporazioaren Osoko Bilkurak ezohiko bilerak egingo ditu, Alkateak hala erabakitzen duenean, edo bestela, korporazioko kideen legezko kopurutik, gutxienez, laurdenak erabakitzen duenean. Zinegotzi batek ere ezin izango du urtero hiru bilera baino gehiago eskatu (urte naturala, kargua hartzen duen egunetik zenbatzen hasita).

2. Korporazioko kideen legezko kopurutik, gutxienez, laurdenak ezohiko bilera egin dadila eskatzen badu, orduan, Alkateak bilera horretarako deialdia egin beharko du, eta bilera egin beharko da, askoz jota, Udalaren Erregistro Nagusian idatzia sartu eta hurrengo hilabetearen

barruan. Egunekeo gai ordenan, ezin dira sartu beste ohiko edo ezohiko bilera betarako proposatutako gaiak, deialdia eskatu dutenek beren beregi horretarako baimena ematen ez badute.

Deialdia idatziz eskatuko da, eta bertan, zergatik eskatzen den (gaia) azalduko da, eta erabakirik hartu nahi baldin bada, eztabaidatu eta bozkatu beharreko testua erantsiko da.

3. Zinegotziek deialdia eskatu arren, Alkateak ez badu bilera horretarako deialdia egiten aipatu hilabeteko epearen barruan, orduan, deialdi hori zuzen-zuzenean egindakotzat joko da, eta bilera hasierako hamabost egunak bukatu eta hurrengo hamargarren egun baliodunean egingo da. Biharamunean, Korporazioko Idazkaritza Nagusiak jakinaraziko die korporazio-kide guztiei. Alkatea edo lege-aginduz bera ordezkatu behar duena absente badago, orduan, Osoko Bilkura baliozkotasunez eratuta egongo da, baldin eta horren kideen legezko kopurutik, gutxienez, herena bertaraten bada; kasu horretan, bertan daudenen artean, adinez nagusia izango da bileraren buru.

4. Ezohiko bilera izango da, baita ere, bilera eraikitzailearen ondorengo 30 egunekeo epearen barruan deitu eta batu behar den osoko bilkura. Bileraren helburuak izango dira Osoko Bilkuren aldizkakotasunaz eta ordutegiaz; Informazio Batzordeak sortu eta osatzeaz; eta Osoko Bilkuraren eskumena diren kide anitzeko organoetarako, Korporazio-kideen artean, ordezkariak izendatzeaz erabakia hartzea; eta Alkatearen ebazpenak ezagutzea gai hauen inguruan: Alkateordeen izendapena, Gobernu Batzordearen osaera, informazio batzordeen presidenteak eta eskuordetzaak.

5. Ezohiko bilerak izango dira, baita ere, zinegotziek Alkatearen aurka aurkez dezaketen zentsura-mozioa tramitatu eta horren inguruan botoak ematea xede dutenak. Hori guztia, Hauteskunderen Araubide Orokorren buruzko 5/85 Legearen 197. artikulua aplikatuko da, 8/99 Legeak eman zion idazkeraren arabera.

26. ARTIKULUA. URGENTZIAZ EGINDAKO EZOHICO BILERAK.

1. Ezohiko bilerak urgentziaz egin daitezke, aztertu beharreko gaia edo gaiak presazkoak izateagatik, Alkateak ezin duenean ezohiko bilerarako deialdia egin bi egun baliodunen aurrerapenaz. Aurrerapen hori ezartzen du, hain zuzen ere, apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.2.b) artikulua.

2. Kasu horretan, egunekeo lehenengo aztergaia izango da Osoko Bilkurak urgentziari buruzko iritzia ematea. **Korporazioa osatzen duten kide kopuru legalaren gehiengo absolutuak** urgentziarik antzematen ez badu, orduan, bilera bukatutzat joko da berehala. (AFA 7/1999)

III. KAIPTULUA. BILKUREN ARAUBIDEA ETA GARAPENA

27. ARTIKULUA. PUBLIZITATEA ETA HITZ EGITEA

1. Osoko Bilkuraren bilerak jendaurrekoak dira. Hala ere, eztabaida eta botazioa isilpekoak izan daitezke, baldin eta Konstituzioaren 18.1 artikulua herriarrei aitortzen dien oinarriko eskubideari kalte egin badakioke, eta gehiengo soilak hala erabakitzen badu.

Bereziki, publikoak izango dira Alkatearen zentsura-mozioa tratatzeko bilerak, eta Alkateak berak planteatuko konfiantza-arazoa jorratzekoak.

Edozein kasutan ere, eztabaida eta botazioa isilpekoak izango dira, baldin eta horietan irizpena eman behar bada espediente jakin bati buruz, eta espediente horretan, Korporazioko funtzionario eta langileei diziplina-zehapenak ezar badakizkieke. Bilera behin eta berriz eten ez dadin, gai horiek eguneko aztergaien hasieran jarriko dira, aurreko bilerari buruzko aktaren onespeneraren atzetik.

2. Ez da inoiz onartuko honakoak ez direnek hitz egitea: Udal Korporazioko kideak; bileran beren funtzioa betetzen ari diren funtzionarioak; 7/85 Legeko 72. artikulua aipatzen dituen edozein elkarte edo entitateko ordezkaria, hitz egitea eskatu dutenean Araudi Organiko honetako 120. artikuluan zehazten den moduan, aztergaietarik baten tramitazio administratiboan alde interesduna izateagatik. Publikoak ezin izango du atsegin edo nahigaberik adierazi. Muturreko kasuetan, bileraren normaltasuna edozein arrazoiengatik oztopatzen duten pertsonak kanporatzea erabaki dezake Presidenteak, baita bilerarekin jarraitzeari buruz erabaki ere. Horri kalterik egin gabe, behin bilera bukatuta, Korporazioak publikoarentzako kontsulta-txanda ezar dezake, udalaren interesekoak diren gai jakin batzuen gainean galdetzeko.

28. ARTIKULUA. DEIALDIA

1. Araudi Organiko honen 25.3 artikulua xedatzen duenari kalterik egin gabe, **ohiko eta ezohiko bilerak**, gutxienez, bi egun-balioduneko aurrerapenarekin deitu behar dira; epe hori, bileraren deialditik bilera hori egin artekoa izango da.

Aurrekoari kalte egin gabe, Alkateak, bere ustez egoki den aurrerapenarekin, talde politikoen bozeramaileei iragar diezaike Osoko Bilkura deitzeko duen asmoa, nahiz eta oraindik gai ordena erabaki gabe egon.

2. Osoko Bilkuraren bilera guztietan, gai-ordena izan behar denez gero, zerrenda horretan sartzen diren gaiak buruzko dokumentazio osoa banatu behar da, dokumentazio hori eztabaidarako, eta hala denean, botaziorako oinarri izan dadin. Horregatik, dokumentazioa zinegotzien eskura utzi behar da, deialdia egiten den egunean bertan, Idazkaritza Nagusian.

3.- Halaber, ezagutza zabalagoa eta osoagoa errazteko asmoz, Alkateak dokumentazio hori talde politikoen bozeramaileei bidaltzeko baimena eman dezake, aurrerapen nahikoarekin eta bide telematikoa egokien bidez.

4.- Urgentziazkoak diren ezohiko bileretan, aurretik Bozeramaileen Batzordea dei daiteke, egokia den administrazio txostenaren ordez.

29. ARTIKULUA. EGINTZA-BATASUNA

Araudi honetan ezarritako salbuespenei kalterik egin gabe, Udalaren Osoko Bilkuraren bilera guztiak, ohikoak zen ezohikoak, urgentziazkoak zein urgentziarik gabekoak, zuzen-zuzenean bukatutzat joko dira bilera hasi eta hurrengo hogeita lau orduak igarotakoan.

AURRETIK AIPATUTAKO KASUAK IZAN EZ ARREN, Alkateak, behar besteko arrazoiak izanez gero, neurrizko atsedenaldia erabaki dezake edozein momentutan. Atsedenaldiaren

iraupena iragarri beharko du eta bilera zein momentutan hasiko den berriro.

Bilera aurrera joan ahala, Alkateak, bere sen onaren arabera, etenaldiak egiteak erabaki dezake taldeei kontsultatu ahal izateko edo taldeen deliberazioei denbora emateko.

30. ARTIKULUA. QUORUMA. KORPORAZIOAKO KIDE ETA BERTARATUEN KOKALEKUA

1. Bilera formalki hasi aurretik, Idazkariak egiaztatu egingo du baliozko osaketarako quoruma.

2. Udalaren Osoko Bilkuraren bilerak baliozkotasunez egin daitezen, gutxieneko quoruma kideen legezko kopuruaren herena izango da. Edozein kasutan, Osoko Bilkuraren Presidenteak eta Idazkariak egon beharko dute, edo horien ordezkari legalak, araudi honetako 25.3 artikulua aipatzen duen kasuan izan ezik, Alkatea edo bere ordezkari legala ez egotea.

3. Bigarren deialdian ez bada lortzen aurreko paragrafoaren arabera beharrezkoa den quoruma, orduan, ulertu behar da bilera zuzen-zuzenean deitu egin dela, ordu berean, hurrengo egun ballodunerako. Orduan ere ez bada lortzen beharrezkoa den quoruma, Presidentetzak efekturik gabe utziko du deialdia, horretarako dekretu egokia emanaz; halakoetan, eguneko gai-ordenan jasotako gaiak atzeratu egingo dira, hurrengo ohiko edo ezohiko bilera deitu eta egin arte.

4. Quoruma ezin da aldatu bilerak irauten duen bitartean.

5. Batzar gelan, Korporazioko kideek euren taldeekin jesarriko dira. Alkateak, behin bozeramaileei entzun eta gero, taldeak nola jarriko diren zehaztuko du. Taldeak jartzeko orduan, lehentasuna izango dute boto gehien lortu duen zerrendako kideek, eta irizpide berbera aplikatuko zaie besteei ere bai. Edozein kasutan, Korporazioko kideen kokapenak erraztu behar du botoak eman eta zenbatzea.

Alkateak deituta, bilerara doazen langile publikoak Alkateak berak zehaztutako lekuan jesarriko dira.

31. ARTIKULUA. AURREKO AKTA ONARTZEA.

1. Bileraren hasieran, Osoko Bilkuraren Presidenteak galdetu egingo du ea Koporazioaren kideren batek iruzkinik duen aurreko bilerako aktaren gainean, deialdiarekin batera banatua. Iruzkinik ez balego, onartutzat joko da. Iruzkinik balego, eztabaidatuko dira eta dagozkion zuzenketak erabakiko dira.

2. Aldez aurretik hartutako erabakien funtsa ezin da inola ere aldatu. Errakuntza materialak edo egitatezkoak bakarrik konpon daitezke.

3. Aurreko akta irakurri eta onetsi dela adierazten denean, egindako oharrak eta zuzenketak jasoko dira.

32. ARTIKULUA. AZTERGAIEEN ORDENA.

1. Gai guztien eztabaida eta botazioa egingo dira, gai-ordenan dagoen hurrenkeraren arabera.

2. Hala ere, Alkateak gaien hurrenkera alda dezake edota gai batzuk behin-behinean kendu, baldin eta horiek onesteko gehiengo berezia behar bada, eta eguneko aztergaien zerrendan ezarritako une horretan, halako gehiengoa lortzea ezinezkoa bada.

3. Aztergai batzuk lotuta daudenean, denak batera eztabaidatu ahal izango dira Alkateak hala erabakitzen badu. Hala ere, gai bakoitzaren botazioa banaka egin ahal izango da.

33. ARTIKULUA. BAZTERTUTAKO GAIK EDO MAHAI GAINEAN DAUDENAK.

1. Aurkeztutako ekimenen egileek eztabaidatzen edo bozkatzten hasi aurretik bazter ditzakete ekimen horiek.

2. Ebazpen aldiko proposamen bat baztertu egin dezake Alkateak, eztabaidatzeko eta bozkatzeko unean proposamena onartu ahal izateko behar besteko gehiengorik ez badago.

3. Eztabaida garaian zinegotzietako edozeinek eska dezake, arrazoiturik, gai zerrendan sartutako espedienteren bat mahai gainean uztea, eta Alkateari dagokio erabakitzea. Zinegotziaren eskakizuna onartuko balitz, ezingo litzateke akordio proposamena bozkatu.

34. ARTIKULUA. HITZ EGITEA.

1. Zinegotziek hitz egin ahal izango dute aurretik Alkateak baimena emanda.

2. Behin hitz egiteko txandaren barruan, Alkatearen etenak bakarrik onartuko dira gaian zentra daitezen edo ohartarazpenak egiteko, edo hitza kentzeko. Hitza kendu ahal izango du hitz egiteko denbora mugatua balitz Araudi honen arabera edo Alkatetzak hala ulertuko balu, eta betiere, bukatzeko birritan eskatu ondoren.

35. ARTIKULUA. ORDENA BERMATZEKO NEURRIAK.

Edozein unetan, Korporazioa osatzen duten pertsonak, ordena bermatzeko neurri gisa, eta araudi hau bete dadin, hitza eska dezakete. Alkateak bidezkoa dena erabakiko du, eta horren ondorioz, ez da inolako eztabaidarik sortuko.

36. ARTIKULUA. AIPAMENENGATIK HITZ EGITEA.

Alkatearen iritziz, eztabaidan zehar zinegotzi baten edo haren portaeraren onestasuna edo duintasuna itsusten duten iritzia edo zehaztugabetasunik esango balitz, aipatua izan den zinegotziari hitzaren erabilera eman diezaioke. Baina txanda hori ez da hiru minutu baino

gehiagokoa izango eta gaiaren muinean sartu gabe egin dizkioten aipamenei erantzuteko baino ez da izango.

37. ARTIKULUA. OHARTARAZPENAK.

1. Alkateak, hurrengo kasuetan, Korporazioko edozein kideri egin diezaioke ohartarazpenen bat:

a) Korporazioaren onestasunaren edo bertako kideen, herri instituzioen edo beste edozein pertsona edo erakunderen aurkako hitzak edo kontzeptuak esaten baditu.

b) Etenaldiak eragiten baditu edo, dena delakoagatik, bilkuraren funtzionamendua asaldatzen badu.

c) Hitz egiten saiatzen bada, horretarako baimenik eduki ez arren edo kendu dioten arren.

2. Bilkura bakar batean hiru ohartarazpen eginez gero, horietako bigarrenean izan ditzakeen ondorioen berri eman ostean, Alkateak bilkuratik ateratzeko agin diezaioke, kanporatzeko hori bete dadin egokitze jotzen dituen neurriak hartuta.

38. ARTIKULUA. PORTAERA ARAUAK.

1. Aurreko artikuluan araututakoaren ondorioz, eta kargudun publikoen adierazpen askatasuna erabat errespetatuta, Udal Korporazioko kideek erabateko begirunea zor diete elkarri, baita elkarrenganako adeitasun erabatekoa ere udal arloko hizketaldi publikoetan eta, batez ere, Osoko Bilkuretako eztabaidetan.

2. Korporazioko kideek ezin izango diete bertan dauden herritarrei hitz egin. Osoko Bilkuraren bilerak egiten diren bitartean, ezin izango dira jokabide edo jarduera jakinak burutu, horiek kalte egiten badiote edo murriztu egiten badute Korporazioko kideen euren karguan aritzeko duten adierazpen askatasuna.

Halaber, Osoko Bilkuretan, Udal Korporazioko kideek, udalerriko herritarren ordezkari hautetsiak direnez gero, ezin izango dute iraingarria izan daitekeen inolako objekturik, idatzirik, argazkirik, grafismorik, sinbolorik **ez antzekorik** erakutsi helburu politikoei, legez kontrakoak direnak izaera administratibo edo penalez.

3. Uneren batean aurreko 2. puntuan ezarritakoa beteko ez balitz, Alkateak, ofizioz edo kideren batek eskatuta, bertaratutako talde politiko guztietako bozeramaileei entzun ostean, eta egokitze jotzen dituen ohartarazpenak egin ostean, sinbologia hori berehala gordetzeko eskatuko lioke erakutsi duenari. Eskakizuna bete ezean, legezkotasunaren barruan, iraina buka dadin egoki irizten dituen erabakiak hartu ahal izango ditu Alkateak. Osoko Bilkurari dagokionez, Alkateak edo hura legez ordeztzen duenak, polemika eragin duten objektuak kentzeko agin diezaioke Udaltzaingoiari eta Udaleko normaltasun demokratikoa berrezartzeko egokitze jotzen dituen neurriak har ditzake.

4. Aurreko ataletan adierazitako gertakarien Korporazioko kide erantzuleak lehendakariak edo haren legezkariak agindutakoa bete beharko du berehala eta nahitaez. Korporazioko kide erantzuleak horrela egingo ez balu, Alkatetzak tokiko araubide legedian eta bateratuan erantzukizunari eta isunak jartzei buruz ezarritako terminoetan egin dezake Korporazioko kide

horren aurka.

5. Elkarri adeitasuna zor diotenez, Korporazioko kideek, bilerak irauten duen bitartean, ez dute eztabaidari traba egin diezaioketen sakelako telefonorik edo elementu eramangarriak erabiliko.

IV. KAPITULUA- GAI ORDENA. ERABAKIAK HARTZEKO PROZEDURA

39. ARTIKULUA. GAI ORDENA

1. Ohiko eta ezohiko bilerei dagokienez, Alkateak finkatuko du gai ordena, Idazkari Nagusiaren laguntzarekin.

2. Ohiko eta ezohiko bileren deialdiarekin batera doan gai ordenan doazen aztergaiak aldeztu aurretik adierazi, galdetu edo kontsultatu behar zaizkio Informazio Batzorde egokiari.

Urgentziazkoak diren ezohiko bilerekin, kontsulta hori ez da beharrezkoa izango, deialdiaren beraren izaera juridikoaren arabera, hori ezinezkoa delako; dena den, ahal den neurrian, horren berri emango zaie udaleko taldeko bozeramaileei, dagokion Bozeramaileen Batzordearen bitartez, ahal izanez gero.

3. Erregela orokor gisa, deialdia, gai ordena eta akten zirriborroak zinegotziei jakinaraziko zaizkie TALDE POLITIKOEN BOZERAMAILEEN BITARTEZ. Komunikazio hori, jaso egin dela zalantzarik gabe ziurta dezakeen edozein baliabide idatzi edo telematikoren bitartez egingo da. Gai ordena udaletxeko iragarki taulan jarriko da ikusgai, baita udalerriko auzoetan dauden bulego administratibo edota kultur aretoetakoetan ere. Horrez gain, udalarenak diren gainerako komunikabide sozialen bitartez (webgunea...) jakinaraziko da.

I. ATALA. Irizpenak

40. ARTIKULUA. IRIZPENA.

1. Irizpenak dira Osoko Bilkurara eraman beharreko akordio proposamenak, gaiaren araberrako Informazio Batzorde eskudunetatik ateratzen direnak. Azalpen zati bat dute eta akordio proposamena. Azken hori da bozkatzeko dena.

Irizpenaren aurka honakoak formula daitezke:

a) Batzordean dauden edozein batzordekideren boto partikularra.

b) Edozein talde politikoren zuzenketa, Araudi Organiko honetako 44. artikulutik aurrera xedatutakoarekin ados.

2. Edozein kasutan ere, proposamen horiek, udal eskumenekin zerikusia izan behar dute, onartu ahal izateko.

3. Irizpen guztiekin batera, administrazio espediente egokiak aurkeztu beharko dira, horiek

irizpenak baino lehen tramitatu behar direlako.

4. Dokumentuek eta jarduketek osatzen dute espedienteak, horiek baitira administrazio ebazpenaren aurrekariak eta oinarriak. Dokumentu eta jarduketez gain, ebazpena betearazteko eginbideek ere espedienteak osatzen dute.

5. Espedienteak osatzeko, elkarren segidan jarriko dira horien osagai diren dokumentuak, frogak, irizpenak, dekretuak, erabakiak, jakinarazpenak eta gainerako eginbideak. Espedienteok tramitatzeko ardura zein funtzionariok izan eta horrexek sinatu beharko ditu espediente horietako orri baliogabeak.

II. ATALA. Proposamenak

ARTICULO 41.

Ohiko eta ezohiko bileretan, urgentziazko arrazoiak izan eta zioak azalduz gero, Alkateak eguneko aztergaien artean sar ditzake alde zuzenetik Informazio Batzorde egokiari kontsultatu ez zaizkion gaiak, **bai, ordea, udal zerbitzu teknikoek behar bezala informatutakoak**; hori egin dezake bere kabuz, edo bestela, zinegotzi eskuordetuek edo edozein bozeramailek hala eskatuta. Dena den, gai horiei buruz ezin da inolako erabakirik hartu, aurretiaz Osoko Bilkuraren gehiengo soilak ez badu onartzen gai hori eguneko aztergaien artean sar dadin.

Halako proposamenetan, nahitaez jaso behar dira, alde batetik, proposamenaren beraren justifikazioa edo azalpena, eta bestetik, kasuan-kasuan hartu beharreko erabaki zehatzaren proiektua.

Urgentzia berrestearen baldintza betetzat joko da, deialdiaren ondoren baina Osoko Bilkuraren bilera izan aurretik, gaiari buruzko irizpena ematen duen informazio batzordea egin denean.

III. ATALA. Mozioak

42. ARTIKULUA. TRAMITATZEA.

1. Mozioak idatziz aurkeztuko dira, eta horietan, erabaki zehatza hartzeko proiektua jaso behar da. Mozioa aurkez dezakete udalean ordezkaritza duen talde batek, halako talde batzuek batera, zinegotzi bakoitzak bere kabuz, edota zinegotzi batzuek batera.

2. Aurreko artikulua aipatzen dituen mozioak nola tramitatuko diren jakiteko, mozioak bi mota edo kategoria hauetan sar daitezke:

a) Mozio batzuk proposatzen dira, bakar-bakarrik, helburu hauetakoren bat betetzeko: bata, erakunde moduan erabaki bat hartzeko edo testigantza adierazteko; eta bestea, Estatuko, Autonomia Erkidegoko, Foru Aldundiko eta udaleko herri administrazioetako agintari eta antolakundeei zerbait eskatzeko, betiere, eskatutako horrek ez dituenean herritarren nahiz Udalaren eskubideak eta betebeharrak sortu, adierazi, mugatu edota aldarazten.

b) Mozio batzuk proposatzen dira, aldiz, erabakiak edo ebazpenak hartzeko; erabaki edo ebazpen horien ondorioz, administrazio egintzak burutu behar dira, eta egintza horiek herritarren

nahiz Udalaren eskubideak eta betebeharrak sortu, adierazi, mugatu edota aldarazten dituzte.

3. a) kategoria edo motako mozioak Korporazioko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, Araudi honek dioenaren arabera, eta orokorrean, gutxienez, ohiko bilerak hasi baino hiru egun baliodun lehenago. Alkateak eguneko aztergaien zerrendan sartuko ditu mozio horiek, behin udal taldeen iritzia egiaztatu eta gero, eta beste kasu baten, horien eztabaida eta botazioa bermatuz eskuduna den erakundearen edozein kide anitzeko organotan gaia ezagut dadin.

Ohiko bilerak hasi baino hiru egun baliodunen epealdi horretan gai berriak sortuko balira, a) kategoriako mozioetarako bidea eman lezaketanak, horiek idatziz edo ahoz azaldu ahal izango dira urgentziazko mozio gisa. Proposamenok eztabaidatu ahal izateko, ohiko bileretan, gai ordenan dauden aztergaiak jorratu eta gero, eta erregu-eskaeretara igaro baino lehen, Alkateak galdetu egingo du talde politikoren batek Osoko Bilkuran deialdiarekin batera bidalitako gai ordenan ez dagoen urgentziazko gairen bat aurkeztu nahi duen, erregu-eskaeretan sartu ezin den gairen bat alegia. Ondoren, proposamena egiten duen taldearen Bozeramaileak mozioaren urgentzia arrazoituko du, eta jarraian, Osoko Bilkurak bozkatu egingo du eztabaida egitearen egokitasuna. Bozketaren emaitza baiezkoa balitz, Araudi honek 50. artikulutik aurrera azaltzen duen prozedurari jarraituko zaio.

4. b) kategoria edo motako mozioak tramitatzeko, indarreko legeriak administrazio prozedurari buruz antolatutakoa beteko da. Mozio horiek zein gai jorratu eta gai horren arabera Udalean eskuduna den sail edo zerbitzuari bidaliko zaizkio, horrek txosten teknikoa egin dezan. Hori egoki bada, txosten teknikoa Informazio Batzorde eskudunari helaraziko zaio, horrek ere irizpena eman dezan. Behin irizpena eman eta gero, espedientea udaleko Idazkaritza Nagusiari bidaliko zaio, horrek eguneko aztergaien zerrendari buruzko zirriborroa presta dezan. Ondoren, zirriborro hori Alkatetza-presidentetzari bidaliko zaio, horrek erabaki dezan ea egokia den ala ez organo eskudunak mozio hori atzeratzea, gai-ordenaren baitan.

43. ARTIKULUA. MOZIO-KATEGORIA ZEHAZTEA

Alkateak erabakiko du mozio jakin bat a) edo b) motakoa den. Horretarako, aldez aurretik, Alkateak udal idazkaritzari eta kontu-hartzailetzari eska diezazkioke, horri egoki baderitzo; ondoren, Alkateak erabakia hartuko du, aurretiaz esandakoaren aiora. Alkateak gaitzets dezake tramitea, bere iritziz proposamenak Korporazioko Osoko Bilkuraren ahalmenak gainditzen baditu.

IV. ATALA. Zuzenketak

44. ARTIKULUA. MOTAK

1. Talde politikoek, euren Bozeramaileen bitartez, zuzenketak aurkez ditzakete, hau da, irizpen edo proposamen bat aldatzeko proposamenak, halakoak gai-ordenan bildu diren heinean.

2. Zuzenketak oso-osokoak edo zati batekoak izan daitezke. Lehenengoak gainera, itzultzekoak edo aukerazkoak izan daitezke; eta bigarrenak, aldiz, ezabatzekoak, aldaraztekoak



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

edo eranstekoak.

3. Aurreko paragrafoetan ezarritako zuzenketei buruz, transakzioa egin daiteke Araudi honek aurreikusitakoaren arabera.

45. ARTIKULUA. EDUKIA

1. Oso-osoko zuzenketak itzultzekoak izango dira, euren helburua bada erabakiaren proiektua edo proposamena guztiz ezabatzea, eta proiektu edo proposamen hori oso-osorik jatorrizko udal sailari edo zerbitzuari itzultzea. Halako zuzenketen botazioa lehenengoa izango da.

2. Oso-osoko zuzenketak aukerazkoak izango dira, baldin eta euren bitartez testu baten onespina proposatzen bada eta testu horren edukiak erabat aldarazten badu jatorrizko proiektua edo proposamena. Halako zuzenketen botazioa bigarrena izango da.

3. Zati bateko zuzenketa ezabatzekoa izango da, baldin eta proiektuaren edo proposamenaren testutik puntu bat edo batzuk kentzea besterik ez badu eskatzen. Halako zuzenketen botazioa hirugarrena izango da.

4. Zati bateko zuzenketa aldaraztekoa izango da, baldin eta proiektuaren edo proposamenaren testutik puntu bat edo batzuk transformatu edo aldatzea besterik ez badu eskatzen. Halako zuzenketen botazioa laugarrena izango da.

5. Zati bateko zuzenketa eranstekoa izango da, baldin eta irizpenaren edo proposamenaren testua oso-osorik errespetatzen badu, eta haren helburua testu hori zabaltzea besterik ez bada. Halako zuzenketen botazioa bosgarrena izango da.

6. Transakzio-zuzenketa izango da, bi zinegotzi edota Udal Talde edo gehiagoren arteko akordioaren ondoren, bakoitzak bere zuzenketak erretiratzen dituenean guztien artean adostutakoa aurrera atera dadin.

7. Zuzenketek, euren edukia kontuan hartuta, aldi berean bi motatako edo gehiagoko ezaugarriak izan ditzakete. Halakoetan, zuzenketa mistoak izango dira, eta euren botazioa unerik egokienean egingo da, Alkateak zuzenketaren edukiaren arabera hala erabakita.

46. ARTIKULUA. TRAMITATZEA.

Aurreko artikuluetan araututako zuzenketak idatziz edo jasotzea ziurtatzen duten bide telematikoen bidez aurkeztuko zaizkio Alkatetzari, Idazkaritza Nagusiarekin bitartez, bilera egin baino hogeita lau ordu lehenago behintzat, espedientearen txertatzeko eta bileran irakurtzeko; proposamena egiten duenak zuzenketa sinatu beharko du. Hogeita lau ordu horietan, Alkatetzak zuzenketa kalifikatuko du eta, hala denean, txosten tekniko egokiak eskatuko ditu, kasuan-kasuan har daitekeen erabakiaren legezkotasuna bermatzeko.

47. ARTIKULUA

1. Behar bezala kalifikatutako zuzenketak eztabaidatu egingo dira, eta ondoren, botazioa egingo da, zuzendutako irizpen edo proposamenaren aurretik.

2. Oso-osoko zuzenketak itzultzekoak izan eta horiek aurrera egiten badute, orduan irizpena edo proposamena ezerezean geratu dela ulertu beharra dago. Oso-osoko zuzenketak aukerazkoak izan eta horiek aurrera egiten badute, orduan ere eztabaida bukatutzat joko da, eta horren inguruan aurkeztutako beste guztiak, baita jatorrizko irizpena edo proposamena ere, ukatu egin direla ulertu beharra dago.

Zati bateko zuzenketa batek edo batzuek aurrera egiten badute, orduan horren ondoren irizpenari buruzko botazioa egingo da, betiere, eransketaren edo ezabatzearen osteko testua kontuan hartuta, kasuan-kasuan izan den zati bateko zuzenketa mota gogoan izanik.

48. ARTIKULUA

Erabaki eta proiektuen inguruan, zuzenketarik aurkeztu bada arlo jakin batzuetan, orduan, Alkateak, zinegotzi eskuorde eskudunek eta mozioak aurkeztu dituzten zinegotziek eta Udal Taldeek transakziozko zuzenketak aurkez ditzakete, proposamen eta akordiorako proiektuei egindako zuzenketa aurrean. Era berean, proposamena egiten duten zinegotzi edota Udal Taldeek transakziozko zuzenketak ados ditzakete, aurkeztutako proposamenen aurrean, zuzenketak aurkeztu dituzten zinegotzi edota Udal Taldeekin. Transakziozko zuzenketa horiek, zuzen-zuzenean, Udalaren Idazkaritza Nagusiari aurkeztuko zaizkio, kasuan kasuko bilera hasi baino ordubete lehenago, gehienez.

AURKEZPENAREN ETA BILERAREN HASIERAREN ARTEAN, Alkatetzak zuzenketa kalifikatuko du eta, hala denean, txosten tekniko egokiak eskatuko ditu, kasuan-kasuan har daitekeen erabakiaren legezkotasuna bermatzeko.

Eragozpenik atzematen ez bada, orduan zuzenketa Osoko Bilkuraren espedienteari erantsiko zaio; bestela, Alkatetzak erabaki dezake gaia mahai gainean eztabaidatu gabe gera dadin.

Transakziozko zuzenketa eguneko aztergaien zerrendari eransten bazaio, orduan aldeztu aurretik botazioa egingo da horren inguruan; eta zuzenketak aurrera egiten badu, orduan ezerezean geratuko da transakzioa eragin duen zuzenketa. Horregatik, eztabaidari eta botazioari ekingo zaie, aurreko artikuluen arabera.

49. ARTIKULUA. "IN VOCE" ZUZENKETAK

Irizpenei eta proposamenei «in voce» zuzenketak egin zaizkiela ulertu behar da, baldin eta zuzenketa horien helburua bada errakuntza materialak, zehaztugabetasun teknikoak edo semantikoak edota hutsune hutsak konpontzea. Halako zuzenketak edozein unetan aurkez daitezke, betiere, gaiaren botazioa egin baino lehenago.

V. KAPITULUA. DEBATEAK

50. ARTIKULUA. EZTABAIDATZEKO GAIK ETA EZTABAIDARIK GABEKOAK.

1. Idazkari Nagusiak gai-ordenako aztergaiak banan-banan irakurriko ditu. Eta ondoren, Alkateak galdetuko du gai hori onesten den.

2. Bertan dauden guztiek, ohiko zeinuen bitartez, euren baiezkua adierazten badute, orduan, gai guztiak aho batez onetsiko dira botaziorik egin gabe, eta Alkateak hala adieraziko du beren beregi.

3. Korporazioko kideren batek hitza eskatuko balu bere botoa azaltzeko, Alkateak eztabaidari edota dagokion ondorengo botazioari hasiera emateko aginduko du.

51. ARTIKULUA. EZTABAIDAK ANTOLATZEKO ARAUAK.

1. Eztabaida sortzen bada, Alkateak arau hauen arabera banatuko ditu hitz egiteko txandak:

a) Inork ere ezingo du hitz egin Alkateak baimenik eman ez badio.

b) Eztabaida hasteko, proposamena egin duenak aurkeztu eta justifikatuko du lehenbizi.

c) Eztabaidagai guztietan, talde politiko bakoitzak bi txanda izango ditu gehienez, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan. **Taldeek txandak, duten zinegotzi kopuruaren arabera alderantzizko ordenan antolatuko dira, eta zinegotzi kopuru berbera duten kasuetan, azken udal hauteskundeetan lortutako boto kopuruaren arabera alderantzizko hurrenkeran.**

d) Alkateak, gaiak duen garrantziaren arabera, talde politikoen txandetako denbora gehiegi ez luzatzea bermatu behar du, txanda guztien denbora berdin banatzeko beharrari so eginez.

e) Baten batek beste baten txandan bera aipatu dutela uste badu, barkamena eskatu nahi badu edo berari leporatutako jarrerak, adierazpenak edo ekintzak justifikatu nahi izanez gero, txanda eska diezaioke Alkateari aipatua izan delako, baina txanda horretan labur eta zehatz erantzun beharko du. **Aipamenak Talde baten duintasun edo ohoreari eragiten badie, Alkateak Talde horren bozeramaileari hitza eman diezaioke, aurreko paragrafoan zehaztutako baldintza berberetan.**

f) Alkateak baino ezingo du hitz egin ordena jartzeko edo eztabaidagaira mugatu behar dela agintzeko.

2. Idazkaritzaren eta Kontu-hartzailetzaren ardura duten funtzionarioek hitz egin ahal izango dute Alkateak aholkularitza teknikorako edo kontzeptuak argitzeko hala eskatzen dienean. Funtzionario horiek uste badute eztabaidan zuzenean eta era formalean legezkotasun zalantzarik duen edo aurrekontuan eragin dezakeen konturen bat aipatu dela, hitza eska diezaioke Alkateari Korporazioari argibideak emateko. Udal Talde Politikoen edo edozein zinegotzik eska diezaioke Alkateari Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzako arduradun diren funtzionarioek hitz egitea Osoko Bilkurari aholkularitza emateko edozein gai teknikori, aurrekontu-eragini edo udal aktibitatearekin zerikusirik duten kontzeptuen azalpenari buruz, eta Alkateak baimena eman dezake ala ez. Galdera bilera horretan bertan edo hurrengoan erantzun beharko da.

Osoko Bilkurak erabakitzen badu Alkatetzak eskuordetutako ahalmenak dituen Korporazioko kideren batek hitz egitea bere jarduerari buruzko galderak erantzuteko, betiere Osoko Bilkuraren eskumenen barruko gaiak badira, gai hori hurrengo ohiko edo ezohiko bileraren gai-ordenan erantsiko da, eta interesatuari jakinarazi egingo zaizkio hartutako erabaki hori eta hitz egin behar duen bilera noiz izango den. Gutxienez, hiru eguneko epea egongo da jakinarazpenetik eta bileraren egunera arte. Hala ere, interpelatuak, bileran baldin badago, momentu horretan bertan erantzutea eska dezake, eta kasu horretan, ez da ondorengo agertzerik izango. Agertzeetan, Araudi honek zehaztutako eztabaidarako txanden hurrenkerari jarraituko zaio, eta informatzaileak hitz egingo du galdetzen zaionari erantzuteko.

3. Eztabaidaren edozein unetan, eta ordena bermatzeko neurri gisa, zinegotziek Alkateari eska diezaiokete araudi hau bete dadin; horretarako, beren beregi aipatu beharko da zein artikulua aplikatu nahi den. Presidenteak bidezkoa dena erabakiko du, eta horren ondorioz, ez da inolako eztabaidarik sortuko. Ordena bermatzeko neurriek ez dute txandarik agortuko.

52. ARTIKULUA. ABSTENTZIOAGATIK, EZ EGOTEA

Indarrean dagoen legediarekin bat etorritz, korporazioko kideetatik edozeinek ez badu parterik hartu behar gai zehatz baten inguruko eztabaidetan eta botazioan, orduan korporazioko kide horrek batzar gela utziko du, gaia eztabaidatu eta horren inguruko botoak ematen diren bitartean. Salbuespenez, ez da hori gertatuko, pertsona horrek korporazioko kide gisa egin duen jarduketa aztertu behar denean; kasu horretan, bertan gera daiteke eta bere burua defenda dezake.

VI. KAPITULUA. BOZKETAK

53. ARTIKULUA. BOTOAREN IZAERA ETA ESANAHIA.

- 1.** Zinegotzien botoa pertsonala da eta ezin da eskuordetu.
- 2.** Botoa baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta Korporazioko kideak abstenitu ere egin daitezke.
- 3.** Dagokion bozketaren eraginetarako, gai bat eztabaidatzen ari den bitartean batzar aretotik atera diren zinegotziak, bozketan bertan ez badaude, haien botoa abstentziotzat hartuko da. Batzar aretoan bozketa hasi baino lehenago sartzan badira, bozketan parte hartzeko eskubidea izango dute.
- 4.** Bozketaren batean berdinketa balego, berriz bozkatuko da eta, berdinketak bere horretan jarraituko balu, Alkatearen kalitatezko botoak erabakiko luke.

54. ARTIKULUA. BOZKETA MOTAK.

- 1.** Bozketak arruntak, izenezkoak eta sekretuak izan daitezke.

2. Bozketa arruntak dira onespen, kontrako edo abstentzio keinu ohikoen bidezkoak.

3. Izenezko bozketetan, Korporazioko kide bakoitzaren abizena esaten da eta horiek, izena entzundakoan, "bai", "ez" edo "abstentzioa" erantzun behar dute, hizkuntza ofizialetako edozeinetan.

4. Bozketa sekretuak dira Korporazioko kide bakoitzak boto-papera kutxatila batean sartuta egiten dena.

55. ARTIKULUA. BOZKETA SISTEMA

1. Sistema normala bozketa arrunta izango da.

2. Izenezko bozketa egin ahal izateko, korporazioko kide batek edo gehiagok eskatu behar dute, edo bestela, Alkateak eztabaidagaiaren edo irizpenaren inguruan korporazioko kideren batek bat ez datorren keinua antzemango balu. **Izenezko bozketaren gaineko erabakiak Osoko Bilkuraren onespena behar du, gehiengo soilaren bidez.**

3. Bozketa sekretua pertsonak izendatzeko edo kargutik kentzeko **erabili ahal izango da.** Beste kasu hauetan ere bozketa sekretua izan daiteke: ohore, norberaren edo familiaren intimitate edo norberaren irudiaren konstituzio eskubideei eragiten dienean. Botazio sekretua lortzeko quoruma, **kasu bietan, gehiengo soila izango da.**

4. Gai baten inguruko bozketaren emaitza aurreko bozketaren berbera izango dela dirudienetan, Alkateak bozketaren emaitza berbera izango den galde dezake. Korporazioko kideren bat ados ez balego, prozedura arruntaren bidez bozkatuko litzateke

56. ARTIKULUA. ERABAKIAK HARTZEKO QUORUMA

1. Udalbatzak, arau nagusi legez, bertaratutako kideen gehiengo soilaren bidez hartuko ditu erabakiak. Gehiengo soila da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean.

2. Gehiengo osoa izango da baiezko botoak Korporazioko kide legalen kopuruaren erdia baino gehiago direnean.

3. Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 182. artikuluko lehenengo paragrafoan ezarritakoaren arabera, ez balego izendatzeko hautagai edo ordezkari gehiagorik, indarreko legedian aurreikusitako asistentzia eta bozketa quoruma, automatikoki, Korporazio iraunkorreko kideen egitezko kopurua hartuko da aintzat, aipatutako hauteskunde legean ezarritakoarekin bat etorritik.

57. ARTIKULUA. UNEA ETA MODUA.

1. Gai baten inguruko eztabaida amaitu ostean, bozketa egingo da.

2. Bozketa egin aurretik, eta beharrezkoa bada edo Korporazioko kideren batek eskatuz gero, Alkateak argi eta zehatz aipatuko ditu bozketaren terminoak eta nola egingo den.

3. Bozketa hasi bada, ezin izango da inolaz ere eten, ezinbesteko kasuetan salbu. Bozketa egiten den bitartean, Alkateak ez dio inori ere hitzik emango eta zinegotziak ezin izango dira aretotik atera ez bertara sartu, harik eta lehendakariak bozketaren emaitza ematen duen arte.

4. Bozketa arrunta amaitu ostean, erabakitakoaren berri emango du Alkateak.

5. Bozketa izenezkoa edo sekretua bada, amaitu ostean, Idazkari Nagusiak botoak zenbatuko ditu eta ozen esango du emaitza zein izan den. Ondoren, erabakitakoaren berri emango du Alkateak.

6. Bozketari atxiki gabeko zinegotziek ekingo diote, baldin badaude, alfabetoaren arabera, eta, gero, talde politikoek emango dute botoa azkeneko udal hauteskundeetan lortu zuten boto kopuruaren arabera, gutxien lortu zituztenetik gehien lortu zituztenera.

58. ARTIKULUA. BOTOA EMATEA. AKATSA BOTOAK ZENBATZERAKOAN

Botoa ematerakoan ezin izango da inolako adierazpenik egin, botoa zein norabidetan ematen den adierazteko ez bada.

Botoak zenbatzerakoan akatsa egon dela egiaztatuz gero, berriz zenbatuko dira botoak, baina kasu batean ere ez da bozketa berriz egingo.

59. ARTIKULUA. BOTOA AZALTZEKO TXANDA

Behin Alkateak erabakia iragarri eta gero, bertaratu diren taldeek Alkateari eska diezaioke, txanda bat ireki dadin bakoitzak bere botoaren zergatia azal dezan. Alkateak horretarako baimena emango du, baldin eta berak uste badu botazioaren aurreko eztabaidetan hori ez dela behar bezala azaldu.

TXANDA EMANEZ GERO, HORREK, GEHIENEZ JOTA, BI MINUTUKO IRAUPENA
IZANGO DU TALDE BAKOITZARENTZAT, BI HIZKUNTZA OFIZIALETATIK EDOZEIN
ERABILITA.

VII. KAPITULUA. INFORMAZIO, BULKADA ETA KONTROLERAKO TRESNAK

I. ATALA. Galderak

60. ARTIKULUA. HARTZAILEA, FORMA ETA EDUKIA.

1. Galderaren bitartez, informazioa edo argibideak eskatzen dira, betiere, udal gaiei buruz. Galderak zinegotziek egiten dizkiete gobernu organoei, Osoko Bilkuraren baitan.

2. Korporazioko kideetatik edozeinek edota talde politikoek euren bozeramaileen bitartez egin ditzakete galderak. GEHIENEZ, HIRU GALDERA TALDE POLITIKO ETA BILERA BAKOITZEKO.

3. Hogeita lau orduko aurrerapenarekin eta idatziz egindako galderei hartzaileak erantzungo die, aurkeztu egin diren Osoko Bilkuraren bilera horretan bertan, arrazoitutako arrazoiengatik ezin izango balitz salbu. Bileran bertan, idatziz edo ahoz, egiten diren galderak bilera horretan bertan erantzun ditzake Alkateak edo gaiaren ardura duen zinegotziak, edo bestela, gaiari dagokion Informazio Batzordera bidera daitezke.

61. ARTIKULUA. EZ ONARTZEA

Osoko Bilkuraren Presidenteari dagokio galderen tramitazioa onartzea. Alkateak, proposamena egiten duenari entzun ostean, kasu hauetan ez ditu galderak tramiterako onartuko:

- a) Udalaren eskumenetatik kanpora dauden gaiet buruzkoak direnean.
- b) Galdetzaileren edo beste pertsona bakar baten interes pertsonaleko galderak direnean.
- c) Aurrekarietan edo galderan bertan begirune arauen aurkako hitzak edo kontzeptuak dituzten galderak.
- d) Kontsulta juridiko huts-hutsa eskatzen duten galderak.

62. ARTIKULUA. DEBATEA.

Galdera osoko bilkuran bertan erantzuten bada, zinegotziak galdera labur-labur egingo du eta Alkateak edo gaiaren gaineko ardura duen zinegotziak erantzungo du.

II. ATALA. Eskeak

63. ARTIKULUA. ESKEAK.

1. Eskeak udal izaerako ekintza proposamenak dira. Udalbatzako edonork egin dezake eta edozein Udal Gobernuako Organori egiten zaio. Ezin diete zinegotzi batzuek beste batzuei zuzendu, ezta Oposizioko Taldeei ere.

2. Eskeak ahoz edo idatziz egin daitezke eta bileran bertan edo hurrengo bileran eztabaida daitezke. Edonola ere, eskarien inguruan, ezin da sekula botaziorik egin. Eztabaidan eskea egiten duenak hitz egingo du, eta jarraian, gobernu taldeko beste batek. Proposamena egiten duenak hitza har dezake berriro, eta horri erantzuteko beste txanda baten ostean, eztabaida amaitutzat joko da.

VIII. KAPITULUA. ZENTSURA-MOZIOA ETA KONFIANTZA-ARAZOA

64. ARTIKULUA. BOZKETAREN IZAERA ETA BIDALKETA

- 1. Zentsura-mozioa eta konfiantza-arazoa tramitatzeko, azaroaren 28ko 2568/1986 E.D-ko 108. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.**
- 2. Eztabaida zuzenduko da Araudi honek, modu orokorrean, Osoko Bilkurako eztabaidetarako xedatzen duenaren arabera.**
- 3. Zentsura-mozioa edo Alkateak planteatutako konfiantza-arazoa publikoki bozkatuko da eta izenezko deialdiaren bidez egingo da.**

IX. KAPITULUA. AKTAK

65. ARTIKULUA. AKTAK.

1. Bilera egiten den bakoitzean, Osoko Bilkurako Idazkari Nagusiak akta egingo du. Akta horren gutxieneko edukia hau izango da:

- a) Bilera zein egunetan eta zein ordutan hasi eta bukatzen den. f
- b) Presidentearen eta bertaratzen diren guztien izena.
- c) Eztabaidetan aztertu diren gaiak.
- d) Emandako botoak eta hartutako erabakiak.

2. Aktek, orokorrean, hitzez hitz jasoko dute Osoko Bilkuraren bileran gertatu den guztia.

3. Osoko Bilkuraren Aktek datu pertsonalak babesteko eskubidea gordetzeko forma egokia izango dute.

4. Akten kopia bidaliko zaie Korporazioko kideei bide idatzi edo telematikoetatik.

III. TITULUA. GOBERNU BATZORDEA

I. KAPITULUA. IZAERA, OSAERA ETA FUNTZIOAK.

66. ARTIKULUA. IZAERA.

1. Tokiko Gobernu Batzordea, Alkatearen presidentetzapean, horri dagokion zuzendaritza politikoaren funtzioan modu kolegiatuan kolaboratzen duen organoa da, eta halaber, legeek ematen dizkioten funtzio betearazlea eta funtzio administratiboa betetzen ditu.

67. ARTIKULUA. OSAERA ETA IZENDAPENA.

1. Alkatearen ardura da Gobernu Batzordeko kideak askatasunez izendatu eta banatzea. Kideon kopurua ezin izango da Osoko Bilkurako kideen kopuru legalaren, Alkateaz gain, herena baino handiagoa.

2. Idazkaria Korporazioko idazkari berbera izango da.

68. ARTIKULUA. ESKUMENAK ETA ESKUORDETZEA

Gobernu Batzordearen eskumenak dira Alkateak eta Osoko Bilkurak eskuordetutakoak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 21.3, 22.4 eta 23.2 artikuluek xedatzen dutena oinarri harturik, eta Antolakuntza eta Funtzionamendurako Araudiko 43, 44 eta 51. artikuluen arabera zuzenduko dira.

Eskuordetzeak baliodunak izango dira erabakia hartzen den hurrengo egunetik aurrera, erabaki horretan besterik xedatzen, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeari kalte egin gabe

II. KAPITULUA. GOBERNU BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA

69. ARTIKULUA. BILERAK ETA DEIALDIAK

1. Gobernu Batzordearen bilerak ohikoak, aurretiaz finkatutako aldizkakotasunarekin, eta ezohikoak izan daitezke. Ezohikoak urgenteak ere izan daitezke, eta ahal izanez gero, Alkatetzak egoitza duen eraikinean izango dira.

2. Ohiko bilerak, gutxienez, hamabostean behin izango dira, oporraldietan izan ezik.

3. Ezohiko bilerak Alkatearen erabakiz deituko dira.

4. Alkateari dagokio ohiko eta ezohiko bilerak deitzea, gutxienez, 24 ordu lehenago. Deialdiarekin batera, gai-ordena bidaliko du.

Idazkariak, era berean, Gobernu Batzordeko kide ez diren zinegotziei ere bidaliko dizkie Gobernu Batzordeko bileren gai-ordenak.

5. Gobernu Batzordea baliozkotasunez eratuta geratuko da ohiko eta ezohiko bilerak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, Alkateak eta Idazkariak egon beharko dute, edo horien ordezkioak, eta horiez gain, gutxienez, batzordekideen kopuruaren erdiak.

6. Gobernu Batzordearen bilerak ezohikoak eta urgenteak izan daitezke, aurretik deialdirik egin gabe, Alkateak hala erabakitzen duenean eta batzordekide guztiak bertan daudenean. Bilera horietan, aho batez hartutako erabakiak bakarrik jakin daitezke.

70. ARTIKULUA. GAI-ORDENA.

1. Idazkariari dagokio, Alkatearen aginduei jarraituz, bileren gai-ordena eratzea.

2. Gobernu Batzordeak bileraren gai-ordenan agertzen diren gaiak soilik jorratuko ditu, beti eta, bileraren aurretik, Alkateari aurkeztuz gero, beronek onartu eta Batzordekideek aho batez onartzea erabakitzen badute.

71. ARTIKULUA. ERABAKIAK ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA.

1. Gobernu Batzordearen erabakiak isilpekoak izango dira. Bertaratzen direnek sekretua mantenduko dute; halaber, beren kargua dela-eta, sekretua mantenduko dute eskuratzeko ahalmena izan duten dokumentazioaz.

2. Gobernu Batzordeko bileretara joan daitezke: bere partaideak ez diren Korporazioaren kideak eta Entitatearen zerbitzupeko langileak, euren jarduerari buruzko informazioa izan dezaten, beti eta, kasu bietan, Alkateak berak deialdia eginez gero.

72. ARTIKULUA. ERABAKIEN FORMA.

1. Gobernu Batzordearen erabakiak aktan agertu beharko dira, Idazkariak idatzi eta sinatu behar dituenak.

2. Bilera bakoitzeko aktan, data, hasierako eta bukaerako ordua, bertaratu direnen izen-abizenek, aztertutako gaiek eta onartutako erabakiek agertu beharko dute.

3. Akta Gobernu Batzordeak onetsi behar du egiten duen hurrengo bileran. Horren kopia Zinegotziei bidaliko zaie.

4. Gobernu Batzordeak onartutako erabakiak Idazkariak sinatuko ditu.

73. ARTIKULUA. OSOKO BILKURAREN FUNTZIONAMENDUAREKIN BAT EGITEA.

Kapitulu honetan aurreikusi gabeko zuzenketak aurkeztu, eztabaidatu, eta horien gaineko botazioa egiteari buruz, eta organoaren funtzionamenduarekin zerikusia duten bestelako gaiak buruz ere, araudi honek Osoko Bilkuraren bileretarako ezarritakoa aplikatuko da, baldin eta arauketa hori Gobernu Batzordearen izaerarekin bat badator.



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

Alkateak, bere sen onaren arabera, Tokiko Gobernu Batzordeko eztabaidak zuzendu eta antolatzeaz gain, mahai gainean utziko ditu zenbait gai, gai horiek Alkateak berak edo Zinegotzi batzordekideek hala proposatuz gero.

III KAPITULUA. ANTOLAKETA

74. ARTIKULUA. BATZORDE ESKUORDETUAK.

1. Gobernu Batzordeak, Batzorde Eskuordetuak sortzea erabaki dezake, aldi baterako izaeraz edo iraunkorrak, Sail biren edo gehiagoren eskumenekin zerikusi duten gai batzuk aztertu eta prestatzeko, guztion intereserako diren jardura edo programen jarraibideak gauzatzeko, eta orokorrean, komenigarritzat har daitezkeen gaien azterketa egiteko.

2. Batzorde Eskuordetua eratzeko erabakia ondorengoek zehaztuko dute: aldi baterako izaera edo iraunkorra duen, ezartzen zaizkion eginkizunak, bere jardunbidearen araubidea eta bere kideak, horien artetik Presidentea izendatuko da-eta.

3. Batzorde Eskuordetuen eztabaidak sekretupean gordeko dira eta bere erabakiak irizpide erakoak izango dira.

IV. TÍTULUA. ALKATEORDEAK ETA GOBERNU ARDURA DUTEN ZINEGOTZIAK.

I. KAPITULUA . ALKATEORDEAK.

75. ARTÍKULUA. ALKATEORDEAK.

Alkateak, Gobernu Batzordeko partaideak diren zinegotzien artean, Alkateordeak izenda ditzake. Horretarako, izendapenen hurrenkera izango da kontuan. Ordezko gisa jardun beharko dute Alkatea kanpoan dagoenean, horren gaixotasunaren ondorioz edota kargua hutsik dagoenean, Araubide honek xedatutakoaren arabera.

1. Alkateordeek, Alkateak berak, edo Gobernu Batzordeak eskuordetzen dizkien eskumenak burutuko dituzte; aldi berean, Gobernu Sail baten titulartasuna erabil dezakete edo ez.
2. Alkateorde izateari utzi egingo zaio, kargua uzten denean, beren-beregi eta idatziz kargu horri uko egiten zaionean edota Gobernu Batzordeko kide izateari uzten zaionean.

II KAPITULUA. GOBERNU ARDURA DUTEN ZINEGOTZIAK.

76. ARTÍKULUA. ZINEGOTZI ORDEZKARIAK.

Saileko zinegotzi ordezkariak dira Alkateak Sail bateko edo gehiagoko erantzukizun handieneko funtziorako izendatzen dituenak. Horiek Araubide honetan ezartzen diren eskumenak erabiliko dituzte, baita Alkateak edo Gobernu Batzordeak eskuordetzen dizkietenak ere. Hori guztia, Gobernu Batzordearen kideak diren aldetik, kasuan kasuko, dagozkien ahalmenei kalterik egin gabe.

Zinegotzi Ordezkariek ere badira ordezkaritza berezietako titularrak, bai Alkateak bai Gobernu Batzordeak ere, eginkizun berezietarako izendatu dituztenak, eskuordetzearen helburua, edukiera eta terminoak ondo zehazturik utzita.

III KAPITULUA. DEDIKAZIO ERREGIMENA.

77. ARTÍKULUA. DEDIKAZIO ERREGIMENA.

Alkateak, Titulu honetan aipatutako karguen oso-osoko edo zati bateko dedikazio erregimena zehaztuko du, eta egiten den hurrengo bileran, Osoko Bilkurari jakinaraziko dio.

V.TITULUA. ORGANO OSAGARRIAK.

I. KAPITULUA. INFORMAZIO BATZORDEAK.

I. ATALA: Xedapen arruntak.

78. ARTIKULUA. MOTAK.

Osoko Bilkurak Informazio Batzordeak antolatuko ditu, bereziak edo iraunkorrak izan daitezkeenak, eta erabakitzeke ahalmenik gabeko organoak izango dira.

II. ATALA. Informazio Batzorde iraunkorrak.

79. ARTIKULUA. FUNTZIOAK ETA ALDIZKAKOTASUNA.

1. Batzorde iraunkorrak dira, honako funtzio hauek ohikotasunez gauzatzeko eratzten direnean

a) Tokiko Gobernu Batzordearen edo Osoko Bilkuraren erabakipean dauden gaien azterketa, informazioa edo kontsulta, Osoko Bilkurak Gobernu Batzordeari eskumen eskuordetuak eman dizkionean

b) Alkatearen eta bere gobernu taldearen kudeaketaren jarraipena, izaera orokorrean, Osoko Bilkurari dagozkion goi-mailako kontrolari eta fiskalizazioari kalterik egin gabe.

2. Kontu Berezien Batzordeak ere izaera iraunkorra dauka. Horrek, ohi bezala, indarrean dagoen Legeriak eta Araudi honek ematen dizkioten eginkizunak beteko ditu.

3. Aldizkakotasuna hilabeteen behinekoa izango da gutxienez, oporraldietan izan ezik, beti eta Osoko Bilkurak bestelako aldizkakotasunik zehaztu ezean. **Horrek, eratutako unean, egunak eta orduak erabaki ditzake, nahiz eta bere Presidenteak, bidezko arrazoiak azalduz, alda ditzakeen.**

4. **Ezarritako egunez kanpo, arrazoizko kasuak tartean badira, beste egun ezberdinetan bilerak egiteko deialdia egin daiteke. Hala ere, Araudi honetako 82.1 artikuluan ezarritako epea errespetatuko da.**

80. ARTIKULUA. ERATZEKO ERABAKIA.

Agintaldi bakoitzaren hasieran eta Alkatearen proposamenez, Osoko Bilkurak Informazio Batzorde iraunkorrak eratzeko erabakia hartuko du

Prozedura berbera eginez, eratzeko erabakia alda daiteke geroago.

81. ARTIKULUA. ANTOLAKETA.

1. Batzordeak osatuta egongo dira talde politikoek izendatzen dituzten kideez, Osoko Bilkuran dauzkaten zinegotzi kopuruaren arabera.

2. Alkatea Informazio Batzorde guztietako berezko Presidentea da, efektuzko Presidentetza edozein Korporazioko kideri eskuordetzea eman ahal dion arren.

3. Batzordeetako efektuzko Presidenteen absentsia, gaixotasuna, kargua hutsik geratzea edo edozein eragozpen gertatuz gero, Presidentetza hartuko du adin eta hierarkia nagusieneko gobernu taldeko zinegotziak, hurrenkera horretan.

4. Informazio Batzordeetako Idazkaritza Osoko Bilkuraren Idazkariari dagokio edo eskuordetzea jaso duen funtzionarioari.

82. ARTIKULUA. FUNTZIONAMENDUA.

1. Batzordeen funtzionamendua honako arau hauetara egokituko da:

a) Osoko Bilkurak prestatzeko, Osoko Bilkuraren erabakipean jartzen diren gaiak ezagutu behar dituzten Batzordeak antolatuko dira, Osoko Bilkura bakoitzeko egite-datatik 7 lanegun aurretik gutxienez, presazko kasuetan izan ezik.

b) Bileretarako deialdia egingo da postaz edo sistema telematikoen bidez, Gai Ordena erantsita eta bilera burutu baino 2 lanegun lehenago gutxienez, presazkoetan izan ezik. Deialdia egiten denetik, Batzordekideek eskura izan ditzakete, beren irizpenerako edo aztertzeko diren gai zerrendan agertzen diren espedienteak. Horiek egin dituztenek oso osorik eta behar den moduan sinaturik aurkeztuko dituzte. Alkateak, bide berbera erabiliz, Gobernu Batzordearen edo Osoko Bilkuraren erabakipenera jartzen diren akordioak onartzeko, derrigorrezkoa den oinarritzko dokumentazioa bidaltzeko baimena eman dezake. Horretarako, Osoko Bilkurak Gobernu Batzordeari hori egiteko eskumenak jasotzeko eskuordetzea eman beharko dio, esaterako, Korporazioko kideek edo langileek edo enpresa batzuek edota Korporaziokoak ez diren pertsona partikularrek emandako eztabaidari eta erabakiari dagozkien irizpenak edo txostenak.

c) Gai-ordenan "eskeak eta galderak" izeneko puntua sartuko da.

2. Aipatutako Batzordeak bilduko dira:

a) Alkateak edo efektuzko Presidenteek deialdia egiten duten guztietan.

b) Batzorde horietako zinegotziek hala eskatzen dutenean, baldin eta botoen herena ordezkatzen badute gutxienez; kasu horretan, eskaera Presidenteari aurkeztu behar zaio, jorratu beharreko gaiak adieraziz. Batzordeko Presidenteak bilerarako deialdia egingo du hurrengo hiru egunetan, beti eta proposatutako gaiak bere eskumenekoak badira. Gehienez jota, bilera bera egin

beharko da eskaera egin denetik hamar eguneko epean.

3. Batzordea baliozkotasunez eratuko da osatzen duten pertsona kopuruaren herenaren asistentziarekin, Presidentearekin edota Batzordeko Idazkariarekin edo legalki horiek ordezkatzan dituztenekin.

Quorum hori bilera guztian mantendu beharko da .

4. Irizpenak onesteko nahikoa izango da emandako botoen gehiengo soilak. Berdinketa kasuetan, beste botazio bat egingo da eta berdinketa berriro gertatuz gero, Batzordeko Presidenteak boto erabakigarria izango du.

5. Batzordeko Presidenteak, bere kabuz edo Batzordekideen heren batek hala proposatuta, bileretan korporazioko kideak edo bertako langileak bertara daitezzen eska dezake informazioa jaso eta emateko.

6. Bestelako aspektuetan, Batzordeei aplikatuko zaizkie Araudi honetan Osoko Bilkurarako ezarritako xedapen berberak, **bereziki, portaera desegokiari dagozkionak.**

7. Batzordearen bilerak ez dira jendaurrekoak izango. Hala ere, beraiek erakunde edo banakako pertsonentzat irekita egongo dira irizpena emateko gairen batean zuzeneko interesik badute. Horretarako, Idazkaritza Orokorrean edo dagokion Batzordeko Idazkaritzan eskaera egin behar dute idatziz, bilera egin baino egun baldin bat lehenago gutxienez, interesatzen zaien gaia aipatuz. Kasu horretan, eta Batzordearen hasiera baino lehenagoko kontua denez gero, Presidentetzak, bere iritziz, eskatutakoari baietza eman ala ez erabakiko du. Bertaratu daitezkeen pertsonen kopurua erabakiko da, bere kasuan, bai ordezkariaren irizpideei, bai jorratuko den gaiarekiko loturari, baita leku fisikoari ere erreparatuz.

8. Batzordeek emandako botoen gehiengo soilaren balezko botoaren bidez, azpibatzaileak, ponentziak edo lan-taldeak era ditzakete. Hauen osaketa, funtzionamendu-arauak eta erabakiak onartzeko quoruma zehaztuko dira lehenengo bilera egiten denean. Sortuak izan zirenerako lanak bukatutakoan, dagokion Batzordeari bidaliko diote ondorioak dituen testua, bertan eztabaidatzeko eta botazioa egiteko.

83. ARTIKULUA. ESKUMENA.

1. Batzorde bakoitzak gai jakin batzuen gaineko eskumena izango du.

2. Gai batek Batzorde biren edo gehiagoren eskumenari eragiten dienean, euren dagozkien Presidenteek erabakiko dute ea baterako bilera egiten den ala ez, edo zein Batzordek tratatu behar duen. Akordiorik ez balego, Alkateak berak erabakiko du.

84. ARTIKULUA. IZENDAPENA.

Alkateak izendatuko ditu Batzordeak osatuko dituzten pertsonak, titularrak zein ordezkariak, eurak osatzeko Osoko Bilkuraren erabakiak kontuan harturik. Horretarako, aurretiaz, Talde

Politikoei eskatuko zaie, 5 eguneko epean, euren taldeetako ordezkariak izendatzeko proposamena aurkez dezaten.

85. ARTIKULUA. ARAUEN IRIZPENA.

Arauak sortzeko prozeduran, Batzordearen irizpenak proposamenaren edo proiektuaren hasierako testua izango du, erantsitako zuzenketetatik eratorritako aldaketekin, hala gertatuz gero.

86. ARTIKULUA. ERABAKIEN IRIZPENA.

1. Erabakiak onesteko prozeduran, Batzordearen irizpena izan daiteke, besterik gabe, proposamenari begira adostasuna edo desadostasuna adieraztea.

2. Irizpena manuzkoa da, baina ez loteslea.

3. Batzordekide batzuk ados ez badaude Batzordeak onetsi duen irizpenarekin, orduan, horiek eska dezakete euren ezezko botoa beren-beregi ager dadin; edo bestela, boto berezia azal dezakete, hori Osoko Bilkuran defendatzeko.

87. ARTIKULUA. BATZORDEAREN ERABAKIAK.

Osoko Bilkura ordezkatzearen ondoriozko erabakiak onartzeko, Batzordean proposamenak, proposizioak eta mozioak aurkez daitezke; beti eta, Araudi honek ekimen horietarako ezarritakoak horrela gauzatzea baimentzen badu.

III. ATALA. Kontuen Batzorde berezia.

88. ARTIKULUA. ARAUKETA.

1. Kontuen Batzorde bereziaren osaketa, antolaketa, eta funtzionamendua egokituko zaizkie Araubide honetan beste Batzorde iraunkorretarako finkatuta dauden xedapenei.

2. Kontuen Batzorde bereziari dagozkio tokiko erakundearen kontabilitatea arautzen duten xedapenek emandako funtzioak.

3. Kontuen Batzorde Berezia bilduko da eraketarako erabakiaren araberako aldizkakotasunez; edo bere kasuan, haren aldaketaren arabera.

4. Bere funtzioak gara daitezen, Gobernu organo guztiak, baita Udal Administrazioa ere, Batzordearekin batera lan egitera behartuta daude.

5. Batzorde honen eraketa-erabakian, bere osaketa, antolaketa eta funtzionamendua zehaztuko dira.

IV ATALA . Informazio Batzorde Bereziak.

89. ARTIKULUA. SORRERA.

1. Informazio Batzorde Bereziak, Kontuen Batzorde Berezia izan ezik, izaera ez-iraunkorra daukatenak eta Osoko Bilkuraren erabakipean eratuta daudenak dira, gai zehatzetarako, gaiak aztertzeko, proposamenak azaltzeko edo antzeko kontuetarako, baina ez dira izaera erabakigarrikoak.

2. Bere osaketan, antolaketan eta funtzionamenduan, eraketa-erabakiak ezarritakoaren arabera funtzionatuko dute, Informazio Batzorde Iraunkorren arau erregulatzailerei kalterik egin gabe.

3. Zuzen-zuzenean desegingo dira, behin funtzioen garapena bukatutakoan, horretarako sortuak izan baitziren.

4. Udal Administrazioaren (autonomiadun organoak eta udal merkataritza-sozietateak barne) eta gobernu organoen kudeaketa publikoa fiskalizatzeko asmoz, ikerketa batzordeak sor daitezke.

Euren ondorioak Osoko Bilkurak eztabaidatuko ditu eta botazioa egin.

II. KAPITULUA. BOZERAMAILEEN BATZORDEA.

90. ARTIKULUA. IZAERA.

1. Bozeramaileen batza Alkateari aholkuak eta laguntza emateko organoa da, izaera politikoa duena, batez ere.

2. Legealdi bakoitzaren hasieran eratuko da, Alkatearen ebazpenez, behin Korporazioko partaideak izendatutakoan.

3. Alkatetzaren aldetik, egokitzen hartuko balitz organo honek jorratu beharreko gaien gaineko erabakiren bat edo iritzi zein jarreraren bat hartzea, gaiok beti onartuko dira boto haztatuen irizpidearen arabera.

91. ARTIKULUA. OSAKETA ETA BILERAK.

1. Bozeramaileen Batzordea bilduko da, Presidentetzak, hau da, horren buru den Alkateak edo horrek eskuordetutako zinegotziak hala eskatuta, zinegotzien legezko kopuruaren herena, gutxienez, ordezkatzeko dute Bozeramaile baten edo gehiagoren ofizioz edo eskari ziodunaren bidez. Alkateaz gain, Talde Politikoen Bozeramaileek edo eskuordetuta dauden euren ordezkariak ere osatuta dago. Batzordearen Idazkaria, bere Presidenteak komenigarritzat jotzen duenean, Korporaziokoa izango da; azken kasu horretan. Araubide honetan ezarritakoarekin bat datorren adostasun akta egingo da.

2. Deialdia, presa bereziko arrazoiengatik izan ezik, ahalik eta modurik arinenean egingo da, bera egiteko data baino 12 ordu lehenagoko aurrerapenarekin, eta jorratuko diren gaiak ondo adierazita.

Aurreko puntuan finkatutako quoruma lortzen denean, eta Bozeramaileek hala eskatuta, bilera egiten denean, Presidentetzak deialdia egingo du eskatzen denetik hiru asteguneko epean, gehienez jota. Eskaera idatzizkoa izango da, eta bertan, jorratuko diren gaiak azalduko dira.

3. Bozeramaileen Batzordea bilduko da:

- a) Garrantzi berezietako gaietan jarrera politikoak aztertzeke, edo bere kasuan, akordioak lortzeke; edo Udalaren Osoko Bilkurak jorratuko dituen gaien gaineko hurbiltasuna lortzeke. Aurreko guztia, ekintza berriak agertuz gero, edo momentu horretara arte, lortutakoa baino akordio zabalagoa lortzeke aukera aurreikusiz gero.
- b) Izaera instituzionaleko akordioak lortzeke premia dagoenean eta gaiak ezin badira udal antolaketaaren beste arlo batzuetara bildu edo udaleko gainontzeko organoen eskumenekoak ez badira..
- c) Osoko Bilkurako bileren funtzionamenduarekin zerikusia duen edozein gai ere jorra dezake.
- d) **Araubide honek erregulatzen dituen kasu haietan guztietan.**

VI. TITULUA. ZINEGOTZIEN ESTATUTUA.

I. KAPITULUA. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

92. ARTIKULUA. ERREGIMEN OROKORRA.

Legeek onartzen dizkieten beste batzuei kalterik egin gabe, Zinegotzien eskubideak eta eginbeharrak dira Araubide honetan ezartzen direnak.

93. ARTIKULUA. AGERTZEKO ESKUBIDEA ETA EGINBEHARRA.

1. Zinegotzi guztien eskubidea eta eginbeharra da Osoko Bilkurako bileretara joatea, eta bertan, hitza eta botoa izatea; gauza bera gertatzen da kide anitzeko organoetan, zinegotziok horren kide diren heinean. Alabaina, arrazoi zuzenik badago bilera horietara joatea eragozten duena, orduan Zinegotziek, behar besteko aurrerapenarekin, dagokion organoaren Presidenteari horren berri eman beharko diote.

2. Zinegotziek, aurrerapen nahikoarekin, puntualtasunez eta egokitasunez informatuta egoteko eskubidea daukate, eta hori, ahalik eta bide egokien bidez, baita Udalak berak antolatutako garrantzizko jarduera publiko guztiez ere. Era berean, beste haietaz ere informatuta egoteko eskubidea daukate, izaera instituzionala izan ala ez, Udalaren ordezkari den Alkatearen berezko eskumenekoak izan ezik. Kasu horretan, Talde Politikoei ordezkari bana izendatuko dute.

3. Zinegotziak Udal mugartetik kanpo badaude hamabost egun baino gehiago, orduan, hori Osoko Bilkurako Presidenteari adierazi behar diote, ahoz zein idatziz, zuzen-zuzenean edo Talde politiko horretako Bozeramailearen bidez, eta ondo zehaztuz, ustez, zenbat denbora egongo den udal mugartetik kanpo. Betebehar hori ez da aplikatuko abuztuan.

94. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK.

Zinegotziek bere funtzioak duintasunez eta eraginkor bete ahal izateko dagozkien ordainsariak, dietak eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea daukate; eskubide hori, toki-araudiaren legeriaren arabera, Araudi honen arabera eta Osoko Bilkurak, bere garapenerako eta aplikatzeko xedatu dituenen arabera izango da.

Dedikazio eskusiboa duten karguek zein dedikazio partziala dutenek Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta hartuko dute, eta Udalak ordaindu beharko ditu enpresa-kuotak, indarrean dagoen legeriaren arabera, eta euren ordainsariak maila daitezke bakoitzeko erantzukizun maila, emandako funtzioak, eta bere kasuan, bete ahal izateko dedikazio maila kontuan izanik. Hori guztia, Korporazioko Osoko Bilkurak lana burutzeko aplikatu ditzakeen beste iritzi batzuei kalterik egin gabe.

Aurreko atalean aipatzen den karguren bat betetzeko Korporazioko kide izendatzeak bakarrik suposatuko du berari dagokion dedikazio maila aplikatzea, beti eta izendatuak onartzen bada. Aukera hori interesatuak alda dezake geroagoko edozein momentutan, onartu dueneko data, edo bere kasuan, uko egin dionekoa izango baitira, dagokion dedikazio maila eta berezko ondorioak aintzat harturik, jardueraren hasierako edo bukaerako sari horien zenbatekoa.

Korporazioko kideari dedikazio eskusiboa aitortu bazaio, orduan, Korporazioko kide horrek lehentasunez aritu beharko du karguari dagozkion eginkizunetan. Korporazioko kide horrek bestelako zereginak bete ditzake, baina garrantzi txikikoak edo ezohikoak izan behar dute, eta edozein kasutan ere, ezin diote kalterik egin Korporazioan hark duen dedikazioari. Hori guztia, indarreko legeriak bateraezintasunari buruz ezarritakoarekin bat etorriz.

Korporazioko kideari dedikazio partziala aitortu bazaio, eta Korporazioko kide hori beste zereginetan aritzen bada, ezin izango dio kalterik egin Korporazioan duen dedikazioari; gainera, Korporazioko zereginetatik kanpo dauden eginkizunek beti bateragarriak izan beharko dute ordezkatzeko duen funtzioarekin. Egoera horretan dauden Korporazioko Osoko Bilkuraren bateragarritasunari buruzko adierazpena lortu beharko dute eta gertatzen zaizkion aldaketan berri ere eman beharko dute, beti eta Araubide honetan eta indarreko legerian aurreikusitako interesari buruzko adierazpenari kalterik egin ezean.

95. ARTIKULUA. KORPORAZIOKO KIDEEN DIETAK.

1. Osoko Bilkuretar, informazio batzordeetara, Korporazioaren menpeko erakundeen artezkaritza organoetara, berezko nortasun juridikoa baldin badute, enpresetako administrazio kontseilu etara, udal kapital osoa edo gehiengoa badute, kontratazio mahai edo organoen bileretara, eta orokorrean, Udalaren menpean dauden edozein kide anitzeko organotara joateagatik, eskubide osoko kideak direnean, zinegotziek diru-kopuru jakina jasotzeko eskubidea dute. Zenbateko horiek, momentu bakoitzean indarrean dagoen Osoko Bilkuraren erabaki egokiaren bidez ezarritakoak izango dira. Aipatutako asistentzia dietak jasotzeko eskubidea bakarrik dute dedikazio eskusiboa edo partziala ez duten Korporazioko kideek.

2. Hala ere, Zinegotzi bat, Batzorde bateko eskubide osoko kidea izanik, joango ez balitz, talde politiko bereko beste kide batek hura ordezkari dezake; kasu horretan, ordezkari dagokion saria ordaindu beharko zaio.

96. ARTIKULUA. ASEGURUAK ETA BESTE HOBETUNTZA BATZUK.

Udalak bizi-aseguru eta istripuetarako poliza bat hitzartu beharko du, toki eskuordetzea duten pertsona guztientzat, euren langileentzat ebatzi den antzeko estaldurarekin.

Gaixotasun edo istripu batengatik baja eta amatasun baja kasuetan, kargua betetzeko dedikazio eskusiboa edo partziala duten toki ordezkariak, euren ordainsarien % 100 osatzeko diru-konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango dute, instituzioko langileak duen termino berberetan.

97. ARTIKULUA. BATERAEZINTASUNAK.

1. Zinegotziek, une oro, bateraezintasunei buruzko arauak errespetatu behar dituzte eta Korporazioari edozein egiteren berri eman beharko diote, egite hori bateraezintasun arrazoia izan badaiteke.

2. Alkateak zinegotzi bakoitzeko bateraezintasunaren egoeraren proposamenak Osoko Bilkurari jakinaraziko dizkio hamabost eguneko epean, baldintzaren osotasuna bereganatu duen hurrengo egunetik kontaturik, edo bateraezintasuna dela-eta, egindako adierazpenean gerta dakioken edozein aldatetaren derrigorrezko jakinarazpenean.

3. Behin bateraezintasun arrazoia gertatu eta Korporazioaren Osoko Bilkurak hori adierazi eta gero, bateraezintasuna duenak aukeratu du zinegotzi izateari uztea, edo bestela, bateraezintasuna erakartzen duen egoerari uztea; horretarako, hamabost eguneko epea du bateraezintasuna adierazten duen jakinarazpena jaso duen hurrengo egunetik aurrera.

4. Aurreko paragrafoan ezarritako epea igaro bada eta interesatuak ezer aukeratu ez badu, orduan ulertuko da horrek uko egin diola zinegotzi izateari. Horren ondorioz, Osoko Bilkurak adierazpena eman beharko du hutsik geratu den karguaren gainean eta Hauteskunde Administrazioari horren berri eman beharko dio, Hauteskundearen Araubide Orokorari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikulua ezarritakoaren arabera.

98. ARTIKULUA. ABSTENTZIOA ETA ERREKUSATZEA.

1. Legeak ezartzen dituen bateraezintasunaren arrazoiei kalterik egin gabe, zinegotziek ezin dute parte hartu gai jakin baten eztabaida, botazio, erabaki edo betearazpenean, baldin eta hori ezartzen badu administrazio prozedurari eta herri administrazioen kontratuei buruzko legeriak.

2. Zinegotzien jardunetan abstentzio arrazoiak biltzen direnean eta horiek erabakigarriak direnean, partaide izan direnen eginkizunak baliogabetuak izango dira.

3. Interesatuak zinegotzien kontrako errefusatze arrazoiak susta ditzakete, abstentzio arrazoia dagoela pentsatzen dutenean; orduan, Osoko Bilkurari dagokio adierazten diren errefusatze arrazoiak ebaztea.

99. ARTIKULUA. PORTAERA.

Zinegotziek behar den gizalegez jokatu behar dute eta Udal organoen funtzionamendua eta ordenaren arauak errespetatu. Horrez gain, herritarren oinarritzko eskubideei kalte egin diezaieketen gaien eztabaida eta jardunei buruzko sekretua gorde behar dute.

100. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNA.

1. Zinegotziek, euren karguan aritzean burututako egiteen edo ez egiteen ondorioz, erantzukizuna izango dute. Horiek auzitegi eskudunen aurrean exijituko dira eta aplikagarria den ohiko prozeduraren bidez tramitatuko da.

2. Udaleko erabakien erantzukizuna dute erabakien aldeko botoa eman duten bertako kideak direnak.

3. Araudi honetan adierazten ez den guztia Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 145. eta 146. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango da, Leioako Udalaren zerbitzupeko langileen erantzukizun administratiboa eta penala zuzentzeko, eta aldi berean, bertako zerbitzukoak diren agintariena.

4. Erantzukizun zibila, ahal den neurrian, aseguru-poliza egokiaren bitartez estaliko da, eta Korporazioak ordainduko du poliza hori, aurreko paragrafoetan adierazitakoaren nahitaezko betetzeari kalterik egin gabe, Herri Administrazioen zerbitzupeko langile eta agintarien ondare-erantzukizuna exijitzeko.

101. ARTIKULUA. BABES JUDIAZIALA.

1. Korporazioak Zinegotziei behar duten babesa emango die, euren eginkizunak askatasunez, baketsu eta eraginkor bete ahal izateko. Horretarako, euren eginkizunetan egite edo ez egiteagatik sortu daitezkeen arazoei aurre egiteko babesa ziurtatzeko beharrezkoa zaien asistentzia juridikoa emango die.

2. Asistentzia juridikoa ematea, bai Udal Aholkularitza Juridikoaren bidez, bai independenteak diren abokatuen bidez, kasuan kasuko organo eskudunak erabakiko du zeinek egin.

II. KAPITULUA. INFORMAZIO ESKUBIDEA.

102. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIOAREN INFORMAZIO ESKUBIDEA.

1. Korporazioko kideak diren aldetik, zinegotziek Gobernutik eta Udal Administrazioetik argibideak, datuak eta informazioak jasotzeko eskubidea dute, beti eta informazio hori korporazioko zerbitzuen eskura badago eta zinegotzien eginkizunak betetzeko beharrezkoa bada.

2. Aurreko paragrafoan jasotako eskubiderako eskaera, aurkeztu zen egunaren hurrengo bost egun balioduneko epean ebatzi beharko da, arrazoituta. Epe horretan, ebazpen zehatzik

ematen ez bada, eskaera horri baiezkoa eman zaiola ulertuko da, administrazio-isiltasunaren ondorioz.

103. ARTIKULUA. EGINKIZUNEN MODALITATEAK.

1. Zinegotziek, kasu bakoitzean, betetzen dituzten eginkizunak kontuan harturik, informaziorako eskubidea egikaritzeko honako modalitate hauek onartzen dira:

- a) Gobernu erantzukizuna burutzean.
- b) Kide anitzeko organo-kidearen eginkizunak burutzean
- c) Kontrola eta fiskalizazio eginkizunetan aritzea.

104. ARTIKULUA. GOBERNU ERANTZUKIZUNA DUTEN ZINEGOTZIAK.

Gobernu erantzukizuna duten Zinegotziek duen udal zerbitzu eskudun eta dagokien organo kudeatzaileetatik jaso ditzakete euren erantzukizunak beharrezkotzat hartzen dituen gaiei buruzko edozein informazio.

105. ARTIKULUA. KIDE ANITZEKO ORGANO-KIDEAK.

1. Osoko Bilkurako, bere Batzordeetako edo beste kide anitzeko organo batzuetako kideak diren aldetik, Zinegotziek, kide diren organoen gai-ordenan agertutako aztergaien gaineko informazioa jaso dezakete, euri dagozkien espedienteen bidez.

2. Deialdia egiten den momentutik, euren eskura egongo da informazioa, berau kontsulta dezaten. Alkateak berak baimenduko du, nahiz eta gai batzuk Osoko Bilkuraren eskumenekoak izan, paperezko kopia edo telematikaren bidez, aipatutako espedienteak bidaltzea, edo behintzat, derrigorrezkoa den oinarritzko dokumentazioa espedienteen ezagutza izateko botazioa gauzatu ahal izateko.

106. ARTIKULUA. KONTROL EGINKIZUNERAKO INFORMAZIOA.

1. Gobernu organoen kontrol eta fiskalizazio eginkizunak burutzeko, Zinegotziek, Alkatetzari edo eskuduna den Informazio Batzordeko Presidentetzari zuzenduriko idazkiaren bidez, udal zerbitzuek duten informazioa eska dezakete, bere kasuan, gaiaren arabera. Idazkiak zehaztu beharko du informazioa eskatzearen arrazoiak.

2. Jasotzeko eskaera ontzat emango da, administrazio-isiltasunaren ondorioz, egutegiko bost eguneko epean ez balego ezetza ematen dion ebazpenik, Udal erregistro orokorrean aurkeztu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, ezetza ematen duen ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eskatutako informazioa ez emateko zuzenbidean oinarritutako arrazoiak adieraziz.

3.- Aurrekoa gorabehera, Korporazioko kideen informaziorako eskubidea bermatu nahian, Alkateak, Idazkaritzaren bidez, Korporazioari jakinaraziko dizkio, Osoko Bilkurako ohiko bilera bakoitzeko aurrerapen nahikoarekin, Osoko Bilkuraren azken ohiko bileratik onartutako Ebazpenak. Era horretan, Zinegotziek gobernu organoen kontrola eta fiskalizazioa burutu ahal izateko, udal administrazioaren garapenaren gorabeherak ezagut ditzakete.

107. ARTIKULUA. ESKURATZEKO MODUA.

1. Informazioa emango da interesekoa den dokumentazioa ikusi eta kontsultatzearen bidez, gordeta dagoen lekuan bertan. Bertara, zinegotziak joan daitezke, gehienez, beharrezko akreditazioa duten bi aholkularirekin batera, aurretik Idazkaritza Nagusiari jakinaraziz.

2. Zinegotziek espediente barruan dauden agiri zehatzen kopiak jasotzeko eskubidea dute. Ezin izango dira espedienteen kopien bereizi gabeko eskaerak egin.

108. ARTIKULUA. PRINTZPIOAK.

1. Zinegotziek eta euren aholkulariek eginkizunak ondo betetzeko ematen zaien informazioari buruzko konfidentzialtasuna zaintzeko beharra dute. Bereziki, diskrezioa gorde beharko dute eskatutako informazioak herritarren oinarritzko eskubideei eragiten badie.

2. Informaziorako eskubidea burutzeak ezin izango dio administrazio-eraginkortasun printzipioari inolako kalterik egin. Hori lortzeko, udal zerbitzuen lan erregimenarekin bateratu beharko da.

3. Bereziki, ezin izango da informazio orokorren ez eta bereizi gabekoen eskaerarik ere egin.

4. Ebazpen judiziala egon ezean, ez da inolaz ere aterako espediente, liburu eta agiririk udaletxetik edo dagozkien sail edo udal bulegoetatik.

5. Zinegotziek eta euren aholkulariek debekatuta izango dute aztertzeko eman diezaieketen dokumentazioaren kopia egitea, Alkateak baimen berezia eman ezean, edo bere kasuan, eskuduna den Informazio Batzordeko Presidenteak.

III. KAPITULUA. INTERES ERREGISTROAK.

109. ARTIKULUA. ADIERAZPENAK.

1. Zinegotzi guztiek bateraezintasun arrazoi posibleak adierazi beharko dituzte, baita sarrera ekonomikoak sortzen edo sor ditzakeen edozein jarduera burutzen badute ere.

Halaber, euren ondare-ondasunen adierazpena egin beharko dute.

2. Adierazpenok karguaz jabetu baino lehen, kargua utzitakoan, eta aldakuntzak gertatzen direnean egin beharko dira. Kasu horretan, aldaketak gertatu direnetik bi hilabeteko epean.

3. Adierazpenak Osoko Bilkurak onetsitako eta Idazkaritza Nagusiak egindako ereduetan egingo dira.

110. ARTIKULUA. UDALAREN INTERESEN ERREGISTROAK.

Adierazpen biak Udalean eratutako Interesen Erregistroan sartuko dira. Interesen Erregistroa egitea eta zaintzea Idazkaritza Nagusiari bakar-bakarrik dagokio.

111. ARTIKULUA. ERREGISTROETARAKO SARRERA.

1. Sarrera eskabide idatziaren bidez egingo da eta eskatzailearen interesa egiaztatuko da. Zinegotziaren identifikazio datuak eman beharko dira, baita eskatutako informazioarena eta aztertu nahi diren dokumentu zehatzena ere.

2. Erregistrorako sarreraren eskaerak Alkateak ebatziko ditu, aurretik Idazkaritza Nagusiaren txostena jasoz interesatuari entzundakoan, Zinegotzi batek bere adierazpen propioaren kopia edo datuak bakarrik eskatzen ditueneko kasuetan izan ezik; orduan, Idazkari Nagusiak zuzenean emango dizkio.

3. Sarrera burutuko da interesatuari egiaztatutako fotokopia erakusten zaionean edo eskatutako dokumentu zehatzei buruzko ziurtagiriaren bidez.

IV. KAPITULUA. UDAL TALDE POLITIKOAK.

112. ARTIKULUA. XEDAPEN OROKORRA.

Korporazioaren jarduketari dagokionez, Udaleko Zinegotziak Talde Politikoetara bilduko dira kapitulu honetan ezartzen den moduan eta xedatzen diren eskubide eta betebeharrekin, atxiki gabeko kideak izan ezik.

2. Hauteskundeetako hautagai-zerrenda berberean hautatutako zinegotzien kasuan, horretarako hautatuak izan baina talde politiko horren barruan sartzen ez badira edo geroago taldea uzten badute, atxiki gabeko zinegotziak izango dira. Koalizioa eratzen duten hauteskunde-zerrendetan, hori osatzen duten talde politikoren batek koalizioa uztea erabakiko balu, ez dira atxiki gabekotzat hartuko.

113. ARTIKULUA. TALDE POLITIKOETARA LOTZEA.

Talde Politikoak eratzea eta haietara lotzea honako arauen bidez zuzenduko da:

a) Talde Politiko bat eratuko da Udalean ordezkaritza lortu duen hauteskunde-zerrenda bakoitzeko.

b) Zinegotziak ezin izango dira Talde Politiko batera baino gehiagora lotu.

c) Zinegotziek ezin izango dute Talde Politiko ezberdin bateko partaide izan, parte hartu zuten hauteskunde-zerrendari dagokionetik kanpo. Koalizioa eratzen duen hauteskunde-zerrenden kasuetan, osatzen duten talde politikoren batek bertan behera uztea erabakiko balu, ez dute lotu gabeko kideen tratamendurik izango.

e) Alderdi bereko Zinegotziek ezin izango dute Talde Politiko bereizirik eratu.

114. ARTIKULUA. TALDE POLITIKOAK ERATZEA.

1. Talde Politikoak eratuko dira Alkateari zuzendutako idazkiaren bidez, taldeak osatzen dituzten Zinegotzi guztiek sinatu behar dutena. Berau Idazkaritza Nagusian aurkeztuko da Korporazioa eratu eta hurrengo bost egun baliodunetan.

Idazki horretan agertu beharko dute Taldearen izenak, taldea osatzen dutenen izenak, bere bozeramailearen izenak, eta bere kasuan, Bozeramailea kanpoan dagoenean bere ordezkaria izango den Zinegotziaren izenak. Kargu horien izendapena alda daiteke korporazio-agintaldian. Hori gertatuz gero, Alkatetzari jakinarazi beharko zaio onartutako erabakia egiaztatzen duen idazki baten bidez.

2. Behin aurreko paragrafoan aurreikusitako epea bukatutakoan, Osoko Bilkurak lehenengo bilera egiten duenean, Alkateak Osoko Bilkura horri adieraziko dio zein Talde Politiko eratu diren, eta zeintzuk diren kideak eta bozeramaileak. Era berean, gerta daitezkeen ordezkaritza eta aldaketekin ere berdin egingo da.

3. Korporazioko kideek euren eskumena lortu badute Korporazioa eratu den bilera baino geroago, hauteskundeetan aurkeztu zireneko zerrendari dagokion Taldean sartuko dira.

115. ARTIKULUA. ATXIKIPEN GABEKO ZINEGOTZIAK.

1. Atxikipen gabeko Zinegotziak izango dira, hauteskundeetan hautatuak izan zirenak eta horretarako eratutako Talde Politiko barruan ez daudenak edo jatorrizko taldea uzten dutenak. Zinegotzi horiek ezin izango dute beste Talde Politiko batean parte hartu; horren ondorioz, "atxikipen gabekoen" taldera pasatuko dira.

2. Udal Talde Politiko bateko zinegotzi gehienek hauteskundeetara aurkezteko hautagai-zerrenda aurkeztu zuen formazio politikoa uzten badute, edo bertatik kanporatuak badira, aipatutako formazio politiko horretan gelditzen direnak izango dira, eta aldi berean, ondorio guztietarako, Talde Politiko horretako legitimatuak.

Edozein kasutan ere, Idazkari Nagusia dagokion hautagai-zerrenda aurkeztu zuen formazio politikoaren ordezkari legalarengana zuzen daiteke aipatutako egoeraren egiaztapena jakinarazteko.

3. Artikulu honetan ezarritakoa hauteskunde-koalizioan aurkezten diren hautagai-zerrendei ez zaie aplikatuko hura osatzen duten formazio politikoren batek koalizioa uztea erabakitzen duenean.

4. Atxiki gabeko kideen eskubide politikoak eta ekonomikoak ezin izango dira jatorrizko taldean jarraitzekotan zegozkienak baino handiagoak izan.

5. KORPORAZIOAN, "ATXIKIPEN GABEKO" TALDEAK ERA ISOLATUAN ARITUKO DIRA ETA EZ DUTE IZANGO KORPORAZIOKO TALDE POLITIKOENTZAKO EGOKITUTAKO BALIABIDE EKONOMIKO ETA MATERIALAK JASOTZEKO ESKUBIDERIK. (117.2 artikuluan dago)

116. ARTIKULUA. DIRU-ESLEIPENAK.

1. Udal Talde Politikoei legozkiekeen diru-kopuruek, bakarrik balioko dute taldearen sustapena edo jarduketarako, eta bere ezarpena Talde Politiko bakoitzeko kopuru bat izango da, hilabeteko aldizkakotasunez, eta beste bat zinegotzitza bakoitzeko. Horretarako, Osoko Bilkurak ezarri beharko ditu, une oro, indarreko legeriaren arabera.

KOPURU HORIEK EZIN DIRA ESLEITU KORPORAZIOPEKO ZERBITZUETAKO EDOZEIN MOTATAKO LANGILEREN DIRU-SARIAK ORDAINTZEKO. EZTA ONDARE IZAERAKO AKTIBO FINKOTZAT HAR DAITEZKEEN ONDASUNAK ESKURATZEKO ERE.

2. Alderdiak, taldeak edo koalizioak uzten dituzten zinegotziak, horien hautagai-zerrendetatik hautatuak izan baitziren, "atxiki gabeko" taldeko partaide izatera pasatuko dira. TALDE HORI, BERE KASUAN, KORPORAZIOAN ERA ISOLATUAN ARITUKO DA ETA EZ DU IZANGO KORPORAZIOKO TALDE POLITIKOENTZAT EGOKITUTAKO BALIABIDE EKONOMIKO ETA MATERIALAK JASOTZEKO ESKUBIDERIK.

117. ARTIKULUA. BALIABIDE PERTSONAL ETA MATERIALAK.

1. Bere eginkizunak garatzeko, Udalak Talde Politikoen eta atxikipen gabeko Taldearen eskura jarriko ditu lokalak eta baliabide material nahikoak, euren eginkizunak egokitasunez betetzeko.

2. Udal Talde Politikoei euren zerbitzurako pertsonala izan dezakete, administrazio eta aholkularitza izaerako eginkizunetan aritzeko. Horretarako, UAO honetako 117. artikuluan aurreikusitako esleipen ekonomikoen zati bat edo osotasuna bidera dezakete. Bai pertsonal horri, bai Talde Politikoko beste edozein aholkulari edo kolaboratzailei Araubide honek ematen dizkien ahalmenak aitortuko zaizkie, baita beste batzuk ere, hala izanez gero, legeek eta indarreko udal erabakiek aplikatzeko aginduen arabera.

2. Talde Politikoei bulego bana izango dute Udaletxean. Erabilgarri daudenen artean, bulegoak egokituko dira. Talde bakoitzak aukeratuko ditu zinegotzi kopuruaren arabera, edo berdinketa kasuan, azken udal hauteskundeetan lortutako boto kopuruaren arabera, handienetik txikienera.

Bulego bakoitza lotuta egongo da dagokion Zinegotzi Taldearen funtzionamendura, eta inoiz ez da erabiliko udal kudeaketarako ez den beste zereginetarako, eta ez zaio beste inori utziko.

Tokiko Udaltzaingoak sarrera eta iteeretarako Erregistro Liburua antolatuko du, udal bulegoetan derrigorrezko pertsonen joan-etorria kontrolatzeko.

Erabiltzen denean, bertan dauden zinegotziek bulego horien erabilera egokiaren erantzukizuna izango dute.

3. Batzorde Aretoa eta Osoko Bilkuren aretoa erabiltzeko, bai talde politiko baten bilera antolatua egiteko edo baita elkarteekin bilerak edo lan-saioak burutzeko ere herritarren interes kolektibo, orokor edo sektorialen defentsarako, Alkatetzaren baimena beharrezkoa izango da. Eskaera egingo da, gutxienez, 24 orduko aurrerapenarekin, bertaratuko direnen aurreikusitako kopurua adieraziz. Alkatetzak, egun horretarako jarduerak, dauden erabilgarritasunak eta **eskatzailiek indarreko arautegia betetzea** kontuan izanik, Batzorde Aretoa edo Osoko Bilkuren Aretoa erabiltzeko baimena eman dezake, edo bere kasuan, udaleko beste areto bat gaitu

Alkatetzaren baimen zehatza izan ezik, ez da erabiliko Udaletxeko beste bulegorik, instalaziorik edo lan-gelarik, ezta udal langileriaren lanpostuari edo Udaleko administrazio zereginiei lotutako lan tresnarik ere. Talde Politiko bakoitzak horren konpromisoa eta erantzukizuna du.

Era berean, udal Talde Politikoek auzo desberdinetako udal lokalak erabil ditzakete, Kultur etxe edo areto, 3. adineko zentroak edo udalaren jabetza edo erabilpena duen beste edozein, eurek antolatutako bilera publikoak egiteko eta herritarrei zuzendutakoak. Horretarako, Alkatetzari bere baimena eskatu behar dio, gutxienez, hiru eguneko aurrerapenarekin, eta horrela, aurrekoan aipatutako baldintzak kontuan harturik, beharrezko baimena lortu.

4. Udalak Talde bakoitzari egokitutako bulegoak hornituko ditu dagozkien altzari eta instalazioekin. Modu berean, garbiketaren, argindarraren, berogailuaren eta mantenu orokorrari dagozkion gastu guztiak ordainduko ditu.

Taldearen bulego-gastuei dagokienez, arau hauek hartuko dira kontuan:

1. Udalak urtero ezarriko du, Osoko Bilkuraren erabaki egokiaren bidez, taldeen diru-sariak, hileroko aldizkakotasunez, beste batzuen artean, eurentariko bakoitzaren bulego-gastuak estaltzeko, udal administrazioak ordaintzen dituen zehatzezko eta salbuespenezko izaerakoak izan ezik. Beste kasuetan, Udalak ez dio horrengatik ez horniketarik ez ordainketa zuzenik egingo hirugarren bati.
2. Bulegoko materiala erostea talde bakoitzari dagokio.
3. Era berean, Talde Politikoen bulego bakoitzeko telefonia-sistemaren alta eta fakturazioa talde bakoitzari egokituko zaio.
4. Udal talde bakoitzari utziko zaio ordenagailu eta inprimagailu bat erabiltzea, baina horiek mantentzea talde bakoitzaren ardura izango da.
5. Udalak talde bakoitzari Internet sarrera kontu bat eta posta elektronikoko helbide bat esleituko dizkio, kontsumo gastuak taldeek bere gain hartuz.
6. Talde Politiko guztiei bideratuko zaie Udaleko espedienteen kudeaketarako aplikazio informatikorako sarrera, datuen babesari buruzko momentu bakoitzeko indarreko arautegia bereziki zainduz.

6. Udal Taldeek, euren jarduerak herritarrei ezagutarazteko bideak izango dituzte.

VIII. TITULUA HERRITARREN PARTAIDETZA.

I. KAPITULUA: OROKORTASUNAK.

118. ARTIKULUA.

Araubide honek, Titulu honen bidez, honako helburu hauek bete nahi ditu:

- 1)** Udal ekimen, jarduera, obra eta zerbitzuen gaineko ahalik eta informazio gehien ematea; eta aldi berean, herritarren harremanak bideratu eta aztertu.
- 2)** Herritarren eta erakundeen partaidetza sustatzea eta erraztea udalaren kudeaketan, eurek Alkateari eta Korporazioko kideei ordezkatzeko eta erabakiak hartzeko ahalmenari kalterik egin gabe, udal hauteskundeetan emandako botoen bidez.
- 3)** Auzotarren eskubideak eraginkor egitea, indarreko legerian jasotzen direnak.
- 4)** Udal kudeaketa herritarrengana hurbiltzea, elkartze mugimendua eta gizarte-laneko boluntarioak bultzatuz. Hori egin ahal izateko, udalerriko erabakietan partaidetza eta kontrola bideratzeko erabakiak hartu beharko dira.

119. ARTIKULUA. UDAL JARDUEREN HEDAPENA

1. Udalak bere kudeaketaren informazioa emango die herritarrei, bere Zerbitzu propioen bidez, eta bando, argitalpenak editatze, liburuxka, kartel, publizitateko panel eta ikus-entzunezko komunikabideen bidez, baita erakunde eta elkarteekin aurretik adostutako ekintza edo informazio bileren bidez ere.

2. Udalak, udal komunikazio ekintzan, herritarren partaidetza bultzatuko du.

3. Halaber, elkarte eta herritarren iritzia jaso ahalko du, bilera, debate, asanblada, inkesta edo iritzi-galdeketen bidez.

4. Informazioa egin daiteke era orokorrean edo banakakoan, baina hala eta guztiz ere, oso ikusgai eta irisgarria izan behar du, eta herritar guztiengana heltzeko modukoa.

5. Martxan dauden egitasmoen buruzko dokumentazio berezia egingo da.

6. Udal jardueren buruzko informazioan ez da balorazio alderdikoirik egingo, jakinarazten diren jardueren buruzko informazio zehaztua emango da soilik.

7. Udalak informazio eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera sustatuko du udal webgunearen bitartez. Webguneak honako hau ahalbidetuko du:

- 1.** Toki Administrazioarekin egiten diren gestioak ahal beste erraztea.
- 2.** Administrazioaren gardentasuna hobetzea sarera igoz Administrazioan eta udalerrian sortzen den informazio publiko guztia.
- 3.** Udal administrazio tramiteak egiteko aukera ematea.



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

4. Tokiko elkartearen sarea ezagutzera ematea herritarrei.
5. Herritarrei ezagutzera ematea existitzen diren organoak eta partaidetza prozesuak.
6. Udal talde politikoen ekimen, proposamen, batzordeelako galdera, mozio eta abarren gaineko informazioa eta xehetasunak.

8. Leioako Udalak, aldizka, zundaketak egingo dizkie herritarrei edozein udal zerbitzuren funtzionamenduari buruzko edota garrantzizko gaiet buruzko balorazioa ezagutzeko.

Udalak zundaketa horien emaitzak ezagutaraziko ditu bere komunikabideen bitartez. Kasuan kasuan zehaztuko den moduan, erabilitako dokumentazioa eta zundaketen fitxa teknikoa jarriko ditu hori eskatzen duten herritarren eskura.

II. KAPITULUA. HERRITARREN PARTE HARTZEA UDAL ORGANOETAN

120. ARTIKULUA

1. Osoko Bilkuraren bilerak jendaurrekoak dira.
2. 7/85 Legearen 72. artikulua aipatzen dituen elkarteetatik batek zerbait azaldu nahi badiu Osoko Bilkurari, eguneko gai-ordenako puntu zehatz bati buruz, eta elkarte horrek alderdi interesdun gisa parte hartu badu, puntu hori aurretiaz administrazio bidean tramitatu izan denean, orduan elkarteak hori eskatuko beharko dio idatziz Alkateari, bilera hasi baino lehen eta, gutxienez, bilera egin baino 24 ordu lehenago.

Alkatearen baimenarekin eta ordezkari bakar baten bitartez, elkarteak bere iritzia azal dezake, Alkateak horretarako ematen dion denbora erabiliz; Autonomia Erkidegoko hizkuntza bakoitzean, denbora hori ezin da hamar minututik gorakoa izan. Elkartearen ordezkariak hitz egingo du, gai ordenara bildutako proposamena irakurri, eztabaidatu eta horren inguruko botazioa egin baino lehen. Alkateak ezezkua eman diezaioke elkartearen eskariari, baldin eta berak uste badu eskatzailearen azalpenak ez duela berrikuntzarik ekarriko jadanik agertu diren jarrerak begira, edota berak uste badu azalpen horrek istiluak eragin ditzakeela. Ezezko horrek zioduna izan behar du.

3. Herritarrek, nahiz eta Osoko Bilkuraren bileretara joan, ezin dute horietan parterik hartu; era berean, ezin dute adostasuna edo desadostasuna adierazi ere. Kasu larrietan, Alkateak herritarren bat bota dezake bileratik, edozein arrazoren ondorioz herritar horrek bileraren ibilera arrunta oztopatzen badu.

4. Aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, behin Osoko Bilkuraren bilera bukatutakoan, Alkateak, aldeztu aurretik hala eskatzen bazaio, eskari eta galderen txanda ireki dezake, bertan dauden herritarrek eskariak eta galderak egin ditzaten, udalaren intereserako gaietan. Alkateari dagokio txanda hori baimendu, antolatu eta ixtea.

121. ARTIKULUA

Gobernu Batzordearen bilerak ez dira jendaurrekoak; gauza bera gertatzen da Informazio Batzordeen bilerekin. Hala eta guztiz ere, interesdunek, eta auzo elkartearen ordezkariak Informazio

Batzordeetara joateko deialdia jaso dezakete; kasu horretan, interes edo garrantzi handiko kontuak tartean izateagatik, entzun egingo da horien iritzia edota eurek duten informazioa, baina besterik ez. Batzordearen Presidenteari dagokio deialdi horiei buruzko erabakia hartzea.

III. KAPITULUA. PUBLIZITATEA

122. ARTIKULUA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Udalak publizitate LABURTUA emango du Osoko Bilkuretako akten eduki osoaz.

Horretarako hurrengo bideak erabiliko dira:

- a) Udalaren Iragarki Taulan argibideak jarriko dira.
- b) Udalaren web orrian argitaratuko dira, dagokion Osoko Bilkuraren akta onartu eta hurrengo bi hilabeteko gehieneko epean.

Aurrekoaren salbuespen gisa, hauteskunde mahaiak osatzeko zozketen emaitza jasotzen duten Osoko Bilkuretako akten edukia, datu pertsonalak agertzen baitira.

IV. KAPITULUA. INFORMAZIOA ESKURATZEA

123. ARTIKULUA

1. Herritar guztiek kopiak eta ziurtagiriak lor ditzakete, udal erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeko; era berean, herritar guztiek artxibategiak eta erregistroak kontsulta ditzakete, eta orokorrean, udal zerbitzu eta aktibitateez dagoen informazioa ere bai, indarrean dauden xedapen legalekin eta araudi honekin ados, betiere Konstituzioaren 105. artikulua zehazten dituen mugan barne. Informazio hori Argibideetarako Bulegoan eskatuko da eta bulegoak, bere arioz, beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egingo ditu, eskatzaileak informazio hori ahalik eta azkarren lor dezan. Dena den, horrek ezin du oztopatu udal zerbitzuen ibilera eta, betiere, azaroaren 26ko 30/92 Legearen 35 eta 37. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da.

2. Aurreko paragrafoan ezarritako eskubidea erabiltzeko, idatzizko eskaria aurkeztu behar da Udalaren Erregistro Orokorrean edo Udalak, unean-unean, horretarako herritarren eskura jar ditzakeen bestelako kanalen bitartez, eta aurkeztu izanaren konstantzia frogagarria izatea ahalbidetzen dutenak.

3. Informazio eskaerek ziodunak izan behar dute, salbu eta erabakien edo ebazpenen ziurtagiriak lortzeko egiten direnean; nolanahi ere, ziurtagiriok lortzeko, kasuan kasuko tasa ordaindu beharko da.

4. Leioako Udalak bermatu egingo du euskara erabili ahal izatea Araudi honetan aipatzen diren partaidetzarako kanal eta tresna guztietan, xedapen orokorrekin eta euskararen erabileraren sustapen eta normalkuntzarako udal araudiarekin bat etorritik.

5. Administrazio Publikoen modernizazio prozesuaren barne eta horiek herritarrengana apurka eta modu jarraian hurbiltzeko prozesuan, Leioako Udalak udal kudeaketa eta administrazio elektronikoa garatzea, hobetzea eta modernizatzea sustatuko du, kalitate maximoarekin eta herritarren interesei begira.

6. Herritarren eskubidea da Alkatearekin, edo berak eskuordetzen duen pertsonarekin, biltzea. Ordutegia, hitzordua eskatzeko prozedura eta epea Alkateak finkatuko ditu. Lehentasuna emango zaie prozeduren tramiteaz hitz egin nahi dutenek edo udal jardueretan interes legitimoa eta zuzena dutenek.

V. KAPITULUA. UDAL GOBERNU ORGANOEI PROPOSAMENAK EDO IRITZIAK HELARAZTEKO ESKUBIDEA

124. ARTIKULUA

1. Herritar eta elkarte guztiek eskubidea dute, Udaleko edozein agintari edo organorengana jotzeko, argibideak edo jarduketa zehatzak eskatzuz. Herritarrek eskaerak egiten badizkiote Udaleko organoetatik edozeini, horrek argibideak eman ditzan edota jarduketa jakin bat gauza dezan, orduan eskaera horiek nahitaez idatziz egin beharko dira, eta horiei erantzuna emango zaie, administrazio prozedurari buruzko legerian ezarritako baldintza eta epeetan. Eskaera horiek Udaletxean aurkeztu ahal izango dira, eta horrez gain, beste udal bulego deszentralizatu batzuetan, iradokizunetarako buzoiak jarriko dira, zehaztu beharreko epean eta forman.

2. Eskaria egin arren, eskari horrek beste administrazio batzuei edo beste organo batzuei dagozkien eskumenak ukitzen baditu, orduan eskarion jasotzaileak horiek bideratuko ditu, administrazio edo organo eskudunak halakoak jaso ditzan; hori egiteaz gain, eskatzaileari horren berri emango dio.

3. Eskariaren bitartez, udal jarduketa bat gauzatzea proposatu bada, orduan eskaeraren jasotzaileak eskatzaileari adieraziko dio zein tramite bete behar den.

Udaleko kide anitzeko organo batek aztertzen badu proposamena, orduan organo horretako idazkariak proposamena egin duenari bidaliko dio eskaerarekin zerikusia duten puntu guztien kopia, puntuok kasuan kasuko bileran aztertu izan diren heinean.

VI. KAPITULUA. ESKATZEKO ESKUBIDEA

125. ARTIKULUA

1. Eskatzeko eskubidearen norainokoa eta edukia izango dira gai horretako lege-xedapenek ezartzen dituztenak, betiere, hurrengo paragrafoetan ezarritako espezialitateekin.

2. Herritar adin nagusiko guztiek, eta adingabekoek ere, euren lege-ordezkarien bitartez, bai eta pertsona juridikoek ere, eskubidea dute Udaleko organoei euren eskubide eta interes zuzenekoak eta pertsonalak aitortu ditzaten eskatzeko. Halaber, Udalaren eskumeneko gaitan, eskubidea dute Udalari egintza edo erabaki zehatzak eskatzeko, bai eta galderak egiteko ere, araudi honetan ezarritakoaren arabera.

3. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 68.2. artikuluan ezarritako kasuan, Alkateak Osoko Bilkurarako deialdia egingo du, hogeita hamar eguneko epean, Korporazioak bere iritzia azal dezan, akzioak erabiltzeko aukerari buruz; Alkateak Gobernu Batzorderako deialdia egingo du, ordea, Osoko Bilkurak horri egin badio eskuordetzea. Batera zein bestera, deialdia behar besteko aurrerapenarekin egin behar da, errekerimendua jaso eta hurrengo hamar egun baliodunetan bilera egin dadin.

4. Interesdunak sinatu behar du eskaerari buruzko idatzia; bertan azaldu behar dira haren izena, egoitza eta Nortasun Agiria, eta idatzi hori Erregistro Nagusian aurkeztuko da. Eskatzaileak beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean badihardu edota beste talde batzuen izenean badihardu, orduan ordezkaritza hori frogatu beharko du.

5. Eskaerak egiten badira udal zerbitzuetako egitura, jardunbidea eta langileen lana hobetzeko, edota udal organoetatik edozeinen jardura irregularra edo anormala konpontzeko, orduan eskaerok organoen euren ekimenez tramitatuko dira, eta espediente egokia irekiko da, horren eragingarritasun osoa lortzeko.

6. Eskaera udal organo jakin bati egiten bazaio eta organo horrek uste badu berak ez duela eskumenik eskaerari erantzuna emateko, orduan bere ustez eskudun den organoari bidaliko dio eskaera, eta eskatzaileari hala egin duela adieraziko dio.

7. Udalari egindako eskaera oro, gehienez jota, hiru hilabeteko epean ebatzi beharko da.

VII. KAPITULUA. HERRITARREN ELKARTEAK

I. ATALA. Elkarteen partaidetza

126. ARTIKULUA

Auzotar guztiei, orokorrean, Udalaren informazioa eskuratzeko eskubidea aitortu zaie. Eskubide horri kalterik egin gabe, Udalak sustatu egingo ditu udal komunikabideak; halaber, herritarren eta dagokien moduan erregistratutako elkarteen partaidetza bultzatuko du. Horrez gain, informazio eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko ditu udal informazioa eta herri partaidetza ahal beste errazteko.

Zehazki, behar bezala inskribatutako elkarteek, beregi eskatuz gero, hurrengo eskubideak izango dituzte:

a) Elkarteek euren egoitzan jasoko dituzte udaleko kide anitzeko organoetarako deialdiak, baldin eta organo horiek jendaurreko bilerak egiten badituzte, eta eguneko aztergaien zerrendan elkarteren xedearekin zerikusia duten gaiak jasotzen badira. Kasu berberetan, Udal organoek hartutako ebazpenak eta erabakiak jasoko dituzte elkarrekin.

b) Elkarteek euren egoitza sozialean jasoko dituzte Udalaren argitalpenak, horiek aldizkakoak izan zein ez izan, baldin eta argitalpenok elkarrearentzat interesgarri izan badaitezke, horren xedea kontuan izanik.

c) Elkarteek mugimenduak udal kudeaketaz dituen iritziak herritarrei azaltzeko erraztasunak emango zaizkie. Horretarako, webgunean, herritarren entitate desberdinen iritzi, iradokizun, kritika edo proposamen horiek jartzeko modua emango da, betiere, horiek udal eskumen edo kudeaketarekin lotuta badaude, eta ez da luzatzeko mugarik jarriko.

d) Elkarteek laguntza ekonomikoak jasoko dituzte, aurrekontuetako baliabideek hori ahalbidetzen duten heinean. Udalak diru-laguntza ekonomikoak eman diezazkieke elkarte eta erakundeei, horiek behar den moduan bete dezaten euren lana. Kasu horretan, udal aurrekontuetan partida zehatza jasoko da horretarako, eta aurrekontuaren betearazpenerako oinarrietan, partida hori banatzeko irizpideak ezarriko dira.

- f) Arloko Aholku Batzordeetan parte hartu ahal izango dute, horietan parte hartzeko eskubidea ematen badie Batzorde bakoitzaren arauketak.
- g) Udal lokal, ekipamendu eta espazio publikoak erabiltzea batzartzeko eskubidea erabiltzeko, Alkatearen aurretzeko baimenarekin, libre dagoen espazioaren arabera, eta eskatzaileak indarrean dagoen araudia betetzera lotuta egonik.

II. ATALA. Udal laguntzak jasotzeko baldintza orokorrak eta irizpideak

127. ARTIKULUA

Udalaren laguntzei eta diru-laguntzei dagokienez, Udalak beren beregi arauketa zehatza emango du, eta horrek zehatz-mehatz ezartzen duena bete beharko da.

VIII. KAPITULUA. HERRI-KONTSULTA

128. ARTIKULUA

Apirilaren 2ko 7/85 Legearen 71. artikulua arabera, Alkatek eskuordetu ezin duen eskumena da Udalaren eskumeneko gaietan herritarrei kontsulta egitea, baldin eta horiek, tokiko gaiak izanik, garrantzi handikoak badira auzotarren interesentzat; salbuespenez, ez da kontsultarik egingo Toki Ogasunari dagozkion gaietan. Herritarrei kontsulta egiteko, aldezturik Osoko Bilkurak erabaki hori hartu behar du, eta horretarako, beharrezkoa da Korporazioko kideen gehiengo osoak horren aldeko botoa ematea; gainera, eta aldezturik ere, Estatuko Gobernuaren baimena izan behar da.

129. ARTIKULUA

1. Kontsultaren proposamena egiteko ekimena, Alkateaz gain, honako hauei dagokie:

a) Herritarrek eska dezakete herri-kontsulta egitea. Osoko Bilkurak aintzat har dezan eskaera hori, ekimenaren sustatzaileek argi identifikatuta egon behar dute eta Udalerrian erroldatutako adin nagusikoen sinaduren %10 bildu behar dituzte, behar bezala egiaztatuak. Hori guztia indarrean dagoen legeriaren arabera.

b) Korporazioko kideen herenak herri-kontsulta egitea proposa dezakete egoki irizten duten udal eskumenekoak eta garrantzi handikoak diren gaietarako. Erabakia Osoko Bilkuraren gehiengo osoak hartu beharko du.

130. ARTIKULUA

Herritarrei kontsulta egiten zaienean, honako hauek bete behar dira:

- a) Leioako herritar orori egingo zaio kontsulta, baldin eta erroldan badago eta behar bezala informazioa jaso badu.
- b) Kontsultak aukerazko konponbideak jaso ditzake, eta ahalik eta informazio gehien emango du, idatziz eta grafiko bidez, egoki bada.
- c) Deialdia egiten denean, kanpaina egokiak egitea ahalbidetu behar da; berebat, informazio zabala banatu behar da eta gaiari buruzko iritzirik politiko desberdinak eztabaidatzeko aukerak izan behar dira, bereziki, informazio bideetatik. Gainera, kontsulta egitean, galderak zuzen azalduta egon behar du.

IX. KAPITULUA. HERRI EKIMENAREN ESKUBIDEA

131. ARTIKULUA

1. Udal hauteskundeetan boto-emate aktiborako eskubidea duten herritarrek, herri-ekimena erabil dezakete udal eskumenekoak diren gaien inguruko erabakitzeke proposamenak, jarduketak edo araudi-proiektuak aurkezteko.

2. Ekimenaren sinatzaileek argi identifikatuta egon behar dute eta Udalerrian erroldatutako adin nagusikoen sinaduren %10 bildu behar dituzte, behar bezala egiaztatuak. Hori guztia indarrean dagoen legeriaren arabera.

3. Ekimena Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatu beharko da, gaiaren araberako organo eskudunak erabakia hartzeari kallerik egin gabe. Edozein kasutan ere, aurretiazko legaltasun-txostena eskatuko zaie Udaleko Idazkari Nagusiari eta Kontu-hartzaile Nagusiari ekimenak Udalaren eskubide eta obligazio ekonomikoei eragiten dienean.

4. Ekimenarekin bat, tokiko herri-kontsulta egiteko proposamena eduki dezake txertaturik. Proposamen hori Titulu honetako VIII. kapituluak aurreikusitako prozedura eta baldintzen arabera tramitatuko da.

IX. KAPITULUA. ARLOKAKO AHOLKU BATZORDEAK

132. ARTIKULUA

1. Udalaren Osoko Bilkurak Arlokako Batzordeak ezartzea erabaki dezake, Kontseilu horien xedea izango da herritarren eta elkarteen partaidetza bideratzea Udalari dagozkion gaitan.

2. Arlokako Aholku Batzordeen xedea da herritarren eta elkarteen partaidetza sustatu eta bideratzea Udalak eskumena duen tokiko aktibitatearen sektore desberdinetan. Horrela, udalerriko gai publikoei buruzko herritarren ardura partekatua ahalbidetzen da.

3. Arlokako Batzordearen eginkizunak izango dira, bakar-bakarrik txostenak, eta hala denean, proposamenak prestatzea, batzorde horri jardueraren zein arlo egokitu eta arlo horretako Udal ekimenei dagokienez.

133. ARTIKULUA

1. Osoko Bilkurak, Arlokako Batzordea sortzeko erabakia hartzen duenean, horren osaera, antolaketa eta jarduketa-eremua zehaztuko ditu.

2. Edozein kasutan ere, Korporazioko kide bat izango da batzorde bakoitzaren buru; Alkateak askatasunez izendatu eta bananduko du kide hori, eta lotura gisa jardungo du, batzordearen eta Udalaren artean. Halaber, lotura lanak egingo ditu Korporazioko Talde Politikoekin eta galan interes legitimoa duten eta sektorearekin lotuta dauden herritarren elkarte inskribatuekin; hori guztia aplikagarria den araudi orokorraren era Batzordearen eraketa eta funtzionamendua arautzen duenaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA.- EBAZPENAK

Alkateak ebazpenak eman ditzake araudi hau interpretatu eta aplikatzeko.

BIGARRENA.- KONTRATAZIO MAHAIA

Udalean ordezkaritza duten eta gobernu taldekoek ez diren talde politikoetako ordezkari banak parte hartu ahal izango du kontratazio administratiboko mahaian, hitz egiteko eskubidearekin baina botorik gabe.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

BAKARRA. XEDAPEN INDARGABETUAK.

Araudi hau indarrean jarritakoan, baliorik eta ondorerik gabe geratuko dira honen kontra doazen, kontraesanean dauden edo bateraezinak diren Udalaren xedapenak.

AZKEN XEDAPENA

BAKARRA. ARGITARATZEA ETA INDARREAN JARTZEA.

1. Udal Araudi Organiko hau indarrean jarriko da, behin beronen testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun igarotakoan.

2. Halaber, Udal webgunean argitaratuko da.

Behin-betiko onartzea

Leioa 2013ko ekainaren 27an

Alkatea,

Leioa



Arau hau indarrean sartzen da 2013ko urriaren 11an.

Behin-behineko Idazkaria,



